Aniztasun Kulturalaren Kudeaketa Mendebaldean: Kulturarteko Jendarte Baten Sorrera

Javi Gómez Gredilla

Gizarte eta Komunikazio Zientziak, Euskal Herriko Unibertsitatea

31: Soziologia Gradua

Gorka Moreno Márquez

2020ko ekaina

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

Aurkibidea

Aurkibidea..... 3

Laburpena 5

1.Lanaren Aurkezpena 6

1.1.Ikerketaren Helburuak 8

1.1.1.Helburu Orokorrak..... 8

1.1.2.Helburu Espezifikoak..... 8

2. Marko Teorikoa 10

2.1.Kulturaren Norabideak: Potentzialitate integratzailetik diskriminazio tresna izatera 10

2.2.Migrazioen Paradigma Aldaketa: XIX. mendetik XXI. mendera..... 14

2.3.Migrazioa eta Segurtasuna..... 21

2.4.Erlatibismo kulturala eta giza eskubideak: kultura eta zientzia..... 24

3. Metodologia 27

4. Analisia 32

4.1.Aniztasun kulturala testuinguratzen..... 32

4.1.1.Aniztasun kulturalari buruzko pertzepzioa 32

4.1.2.Identifikazio kulturalak: kultura mendebaldarra, kultura nazionalak eta azpikulturak problematizatzen. 36

4.1.3.XX.mendeko barne-migrazioetatik XXI.mendeko kanpo-migrazioetara: Euskal Herriko kasua 38

4.1.4.Kanpo-migrazioak “mehatxu” gisa 41

4.1.5.Aniztasun kulturalaren kudeaketa 43

4.1.6.Kulturartekotasunaren potentzialitate eta oztopoak 46

4.2.Eraldatze aktore eta espazioak aztertzen 49

4.2.1.Gizarte zibilaren papera 50

4.2.2.Administrazio publikoen papera 53

4.2.3.Akademiaren papera 59

4.2.4.Prospektiba 61

5. Ondorioak 62

6. Eranskinak 67

6.1.Elkarrizketen Gidoia 67

Sarrera: “gizarte mendebaldarreko errealitate kulturala testuinguratzea”. (30-45´) 67

Aktoreen garapena (30-45´) 67

Prospektiba 68

6.2.Ikerketaren analisirako erabili diren elkarrizketen zerrenda eta informazioa 68

Erreferentziak 70

Laburpena

Ikerketa honek, hasteko, XXI.mendeko migrazio-prozesuen ezaugarriak aztertuko ditu. Gaur egungo migrazioen espezifikotasunak azaltzea, jatorri atzerritarra duten migrarien integrazio-prozesuei ahalik eta erantzunik egokienak ematera bideraturik egongo da. Ikerketa honetan, eremu mendebaldarraren -bereziki Espainiar Estatuaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren- errealitate plurikulturala onartuko da eta, bide horretan, plurikulturalitate horrek kulturartekotasunean traduzitzeko ahalmena duen aztertuko da, kulturartekotasuna integrazio formarik egokiena dela ulertuz. Azterketa horren bidean, hiru aktoreen -gizarte zibilaren, administrazio publikoen eta akademiaren- potentzialitate eta oztopoen inguruan jardungo dugu.

Hitz klabeak: kulturartekotasuna, elkarrekintza, migrazioa, aniztasuna, integrazioa.

This research, firstly, has studied the specific traits of the migration processes of the 21st century. Moreover, the explanation of the specificities of nowadays migrations, is led to give the best of the answers to the integration processes of the immigrants. In this research, as long as we accept the pluricultural reality of the Western world -focusing mainly in the Spanish State and in the Basque Country-, we have analysed if this pluriculturalism could be traduced in an intercultural society, while we understand the interculturality as the best way of integration. Finally, as we develop the investigation, we are going to find the potentialities and the troubles of the three main agents we have previously defined: the civil society, the public administration, and the academy.

Key words: interculturalism, interaction, migration, diversity, integration.

1.Lanaren Aurkezpena

XXI.mendeko jendartearen -jendarte mendebaldarraren- izaera hiperazkartuak, moralitate protestante eta hedonistaren arteko anbibalentzia suertatu du. Hau da, alde batetik, produzitzea baino ez dugu helburu. Izan ere, astean zehar lan egitea da gizakiaren helburu nagusia. Hain dago txertatua produktiboa izateko beharra, hain da errutinarioa gizakiaren bizitza, zein ez dugun beste ezer buruan. Pentsaera hau ilusio bat baino ez da. Posmodernitatean, izaera produktiboari gailendu zaion beste izaera bat ere badaukagu. Aisia, moralitate hedonista, izan ere. Noski, sistema kapitalistak, *osmosis* prozesu baten bitartez, aisia ere barnebiltzen du. Aisialdiaren irudikapenik argiena zentro komertzialetan daukagu. Egun gogor bat izan ostean kontsumitzeko aukera ematen digun espazioa, arazo pertsonaletatik aldentzeko aukera eskaini eta era berean, arazo gehiago sortzen dizkigun espazioa. Zentro komertzialak, langilearen ihesbidea -ihestokia- dira, eta aldi berean, sistema neoliberalaren birprodukzioa.

Horrek guztiak, jendarte mendebaldarraren kultura osatzen du. Tokian tokiko tradizioez, gastronomiaz, arkitekturaz, hizkuntzaz, sistema ekonomikoaz, eta abarrez gain, sistema neoliberalak kultura homogeneoa sortu du jendarte mendebaldarrean. Kultura hiperkontsumista bezala definitu dezakeguna, alegia. Hau da, garai globalizatu honetan, hainbat eta hainbat dira gizaki mendebaldar guztiok konpartitzen ditugun ezaugarriak. Gure balio-sistema osatzen dutenak, izan ere. Hortaz, ordena sozial neoliberala mantentzeko ezinbestekoak direnak. Kultura, izan ere, jendartearen jarrera gobernatzen duen kontrol mekanismoa da -edo kontrol mekanismoak dira- (Geertz, 1973, 51 or.).

Gauzak horrela, XXI. mendean, mundu osoko prozesu migratzaileak direla eta, jendarte mendebaldar plurikulturala eratu egin da. Honek bi argibide beharko lituzke. (1) *Jendarte mendebaldar* bezala, AEBn, Europar Batasunean zein Australian -hein txikiago batean- bizi

diren gizakiak ulertuko ditugu, jasotzen duten immigrazio kantitatea eta heterogeneotasuna kontuan harturik. (2) *Jendarte plurikultural* gisa, espazio geografiko berdin batean kultura ezberdinak izateari esango diogu. Hau da, gaur egungo aniztasun kulturala den errealitate materiala azaltzen duen terminoa. Ez kultura ezberdinak batera existitzeari, ezta elkarbizitzeari ere. Zentzu honetan, kultura, gizakiaren jarrera eta harremanak arautzen dituen tresna gisa ulertuta, XXI. mendean, aro globalizatuan, gizakion jarrera eta harremanak arautzeko era anitz aurkitzen ditugu. Horrek, nahitaez, zalantzan jarri du jendarte mendebaldarraren kultura hegemonikoa, eta horrenbestez, jendarte hegemonikoa eta sistema kapitalista bera. Hau da, espazio geografiko berdintsuan arau sozial eta moralitate ezberdinak egoteak ez du jendarte hegemonikoaren onarpena jaso, eta hein batean baldin bada ere, horrek *kaos*a -sistema neoliberalaren *kaos*aren hastapenak, alegia- ondorioztatu du.

Ikerketa honetan, plurikulturalitateak sortu duen egoera berri honi aurre egiteko kulturen arteko harremana eta kulturen arteko aberasketa posible den aztertuko da. Hau da, kulturartekotasuna posible den. (1) Alde batetik, espazio geografiko espezifikoaren aldetik kulturen hurbiltzea posible den aztertuko da. Hau da, espazio geografiko orokorrari (EAE mailari, adibidez) erreparatu ez ezik, auzo mailan -egunerokotasuneko interakzioetan- sortzen diren harremanei erreparatu nahi zaie. (2) Bestetik, oraindik ere zehatzagoa den kulturartekotasunaren esparru sinbolikoa ere aztertu nahi da. Zentzu honetan, kultura bakoitzaren kodeekin beste kulturak hornitzea posible den ikertuko da, era horretan, erabateko kulturartekotasuna lortuz. Era berean, kulturartekotasunera heldu ezean, multikulturalismoaren potentzialitateak ere aztertuko lirateke. Kasu honetan, multikulturalismoa, kultura ezberdinen arteko tolerantzia eta errespetua ahalbidetzen duen sistema gisa ulertuz, eta inoiz ez, kulturen arteko zubiak eratzen dituen sistema gisa. Hitz batez, kulturartekotasuna “puede considerarse el

estado ideal de convicencia de toda sociedad pluricultural" (Ridao, 2007; hemen aipatuta: Bernabé, 2012, 70 or.).

Atal honekin bukatzeko, ondorengo lerroetan lan honen helburuak zehaztuko dira, helburu orokorra zein espezifikoak azpimarratuz.

1.1.Ikerketaren Helburuak

Behin kulturartekotasuna aniztasun kulturalaren kudeaketarako estrategia integratzailerik egokiena dela definitu dugula, ikerketa honen helburuak kulturarteko gizartea sortzeari bideraturik egongo dira. Hau da, azterketa prozesu honetan kulturarteko gizartea lortzeko aukerak eta zailtasunak definituko dira eta, horrekin batera, integrazio estrategia bat burutuko dugu.

1.1.1.Helburu Orokorrak

XXI. mendeko, eremu mendebaldarreko, gizarte plurikulturala, kulturarteko jendarte batean traduzitzeko ahalmena duen aztertzea.

Kulturarteko jendartea posible balitz, kulturen integrazioa gauzatzeko aktore eta esparru egokienak definitzea.

1.1.2.Helburu Espezifikoak

Gizarte zibilaren partetik kulturen arteko zubiak eratzeko aukerak aztertzea.

Gizarteak, bere osotasunean, kulturartekotasuna eratzeko dituen oztopo eta potentzialitateak identifikatzea.

Kulturarteko interakzioak gauzatu eta hedatu ditzaketen espazioak definitzea.

Instituzio publikoek, politika publikoen bitartez, aniztasun kulturalaren kudeaketan nabarmendu beharko lituzketen espazioak definitzea.

Akademiak -unibertsitatea eta ikerketa publikoa bereziki- aniztasun kulturalaren kudeaketan hartzen jokatzen duen papera aztertzea.

2. Marko Teorikoa

2.1.Kulturaren Norabideak: Potentzialitate integratzailetik diskriminazio tresna izatera

Edward Burnett Tylor-ek (1871) kulturaren adierazpen klasikorik ezagunena sortu zuen. Antropologo honen aburuz, kultura edo zibilizazioa, "gizonak" -ezinbestekoa da gizona gizaki kontzeptuagatik ez aldatzea, garaiko errealitatea era egokian ulertzeko- gizartearen parte izateagatik eskuratzen dituen ezagutzen, sinesmenen, arteen, moralitateen, legeen, ohituren eta bestelako ezaugarrien multzoa da (hemen aipatuta: Bohannan eta Glazer, 2007, 64 or.). Noski, Tylor-ek aipaturiko ezaugarri guzti horiek prozesu historiko eta ekologiko -geografiko, espazial- baten baitan kokatu behar ditugu. Beraz, "ningún concepto puede entenderse si no es a través de la historia" (Comte, 1830; hemen aipatuta: Bohannan eta Glazer, 2007, 75 or.). Adibidez, ezinezkoa zaigu Sumatrako Minangkabau-en sistema matriarkala mendebaldarron "lege orokortuekin" -balio-sistemarekin, kode moralarekin, etikarekin- azaltzea, ezta noski, epaitzea ere. Adierazpen honi, migrazioen teorien ikuspegi soziologikotik *erlatibismo kulturala* esaten zaio. *Erlatibismo kulturala*, modu orokor batean, zientziaren ekoizpenean *ezagutza kokatua*-ren (Haraway, 1995; hemen aipatuta: Martinez et al, 2012, 22 or.) analogia bat izango litzateke. Hau da, garai historiko eta sistema kultural bakoitzak ezaugarri propio eta bateraezinak ditu; hortaz, sistema ezberdinen konparaketa etikoak egiteak ezagutza hutsa ekoiztearen arriskua dauka. Era horretan, Sumatrako Minangkabau-en sistema matriarkala beste balio-sistema batekin justifikatu ezin dugun moduan, irreala izango litzateke iraganeko momentu historiko batekin konparatzea ere. Hala eta guztiz ere, anitzak izan dira kulturartekotasunaren eta multikulturalismoaren partetik *erlatibismo kulturalari* egin zaizkion kritikak. Izan ere, non dago etika unibertsalizatuaren eta kokatuaren arteko muga? Hurrengo atal batean honen inguruan arituko gara.

Balio-sistema mendebaldarra-ri erreferentzia egin diogunean, eta horrenbestez kultura mendebaldarrari erreferentzia egin diogunean, maila makro baten inguruan aritu gara. Conrad Philip Kottak-ek (2007) -antropologo amerikarrak-, gaur egungo errealitateari era ezin hobean egokitzen zaion kulturaren mailaketa burutu zuen. (1) *Kultura nazionala* herrialde berdin bateko jarrera patroi partekatuak izango lirateke. (2) *Nazioarteko kultura* maila supranazionalean eratutako enteen edo inperio berrien ondorioa da. (3) *Azpikultura*-k nazio baten barneko identitate anitzetan jartzen du fokua. Azken honen adibide gisa, Euskal Herri mailan, etnia aldetik ijitoak izango genituzke azpikultura gisa, edota abertzaleak eta nazionalistak ideologia politiko aldetik. Dena dela, XXI. mendeko errealitate mendebaldarrean ezin dugu kultura nazionala Estatu-Nazioen paradigmen barnean sartu. Ikerketa honetan, *nazio* terminoa, lau elementuen arteko konbinazio gisa ulertuko dugu. Zentzu horretan, elementuren batek huts egiterakoan nazioak berak ere huts egingo luke. Hortaz, elementu horien guztien arteko elkarrekintza beharrezkoa da, lur-eremu jakin bat nazio bilakatzeko. (1) Lehena hizkuntza daukagu, nazioaren baitan hizkuntza komun baten -eta ez zertan propioaren- beharra. (2) Mugaturik eta historikoki eraikia dagoen lur eremu baten beharra. Nazioko populazioa barnebiltzen duen lur-eremu finko eta mugatua. (3) Ekonomia berdin bat barnebiltzen duen estatu beraren baitan egon behar du, estatuen arabera baldintza ekonomikoak kualitatiboki aldatzen baitira. (4) Azkenik, psikologiaren espazioa daukagu. Nazioaren masa zibilak identitate kulturalaren bidezko balio-sistema komuna izan behar du (Stalin, 1913). Hortaz, kultura nazional gisa ez ditugu Espainiar edota Frantziar kulturak sartuko, baizik eta, Gaztelako kultura -Espainiar Estatuaren kasuan- edo kultura Alsaziarra -Frantziar Estatuari dagokionez-, esaterako. Gaur egungo sistema kapitalistak eratu eta sustaturiko globalizazio liberala dela eta, kultura nazional horiek guztiak, alde batetik Estatu-Nazio ideiaren menpe geratu dira, eta bestetik, inperialismo

berriak sorturiko kulturaren menpe ere. Kultura hori *nazioarteko kultura* daukagu; eremu mendebaldarrean, geure azterketa gunean, kultura neoliberala, izan ere. Aldi berean, globalizazio liberalak -edo neoliberalak- migrazioen hazkundea sortu du, bigarren eta hirugarren mundutik -azken honetatik bereziki- lehen mundura; beste hitzetan esanda mundu mendebaldarrera. Horrek, Kottak-ek azaldutako azpikulturen hazkundea ondorioztatu du, eremu nazionalak zonalde plurikultural bilakatuz, eta ondorioz nazioarteko eremua are plurikulturalagoa bilakatuz.

Ikerketa honetan, azpikulturak, kultura nazionalak eta nazioarteko kultura, kultura bateragarri gisa ulertuko ditugu. Hipotesi bezala kultura bakoitzak bestea elikatu dezakeela onartuz. Horrekin batera, nazio baten kultura hegemonikoak -kultura nazionalak- eta azpikulturek nazioarteko kultura zalantzan jar dezaketela aldarrikatuko dugu. Honakoa era hobeago batean azaltzeko, hurrengo atal batean erlatibismo kulturalaren, ezagutzen unibertsaltasunaren eta gisa eskubideen inguruan arituko gara.

Talcott Parsons-ek (1951), kultura, sinboloez osaturiko sistema gisa ulertu zuen. Gizonak, sinbolo horiek guztiak erabiltzen ditu bere bizitzari orientazio bat emateko (hemen aipatuta: Geertz, 1973, 215 or.). Aniztasunaren kudeaketaren problematiketako bat, sinbolo horietako asko sen arruntean txeraturik ditugula da. *Habitus* (Bourdieu et al., 1997, 117 or.) bilakatu direla, beraz. *Habitus* horien gehiengoak nazioarteko kulturaren parte dira, balio-sistema neoliberalaren parte dira. Hala nola, indibidualismoa, espazio publikoaren erabilpen instituzionala, hiperkontsumoa, konpetentzia basatia, kolektibo minorizatuen estigmatizazioa, eta abar. Laburbilduz, “lo que todo el mundo dice debe ser verdad, lo que todo el mundo hace debe estar bien” (Tylor, 1871; hemen aipatuta: Bohannan eta Glazer, 2007, 71 or.). Kode sinboliko horien bitartez, kultura hegemonikoaren eramaile garen subjektuok kultura minorizatuen eta geure kulturaren arteko hierarkizazioak gauzatzen ditugu. Ijitoak, esaterako, hileta-tradizio handia dute.

Hortaz, senideren edota gertuko ezagunen bati zeozer gertatzen zaionean ijitoak, kolektibo bezala, ospitalera, elizara, edo dena delako tokira gerturatzen dira. Jarrera hori, geure kultura indibidualistaren ikuspegitik pentsaezina da; horrenbestez, era arraro eta ezkorrean ikusten dugu. Izan ere, ijitoen talde ugari batekin gurutzatu beharrean askok buelta ematen dugu, edo alboko espaloira pasa ere. Era beran, txinatarren jatetxeak modan egon arren, oraindik ere bortizki estigmatizatutako kolektiboa da. Izan ere, ohikoa da haien egoera higienikoaz, jaten dituzten animalien zein produktuen arrarotasunaz, transmititzen dituzten gaixotasunez eta abarrez eguneroko elkarrizketetan mintzatzea. Horiek guztiak, egungo aniztasun kulturalaren izaera asimilazionistari erantzuten diote. Kultura hegemonikoak, kolektibo minorizatuak biltzeko, hau da, kultura minorizatuek -azpikulturek- kultura hegemonikoa asimilatzeko hainbat teknika erabiltzen dituzte. Teknika horiek zenbait kasuetan ilegalak izan daitezke, aurreiritzietan oinarritutako atxiloketak kasu, edo legalak izan daitezke, hezkuntza-sistemaren egitura kultural zehatza esaterako. Teknika legal edo ilegalek komunean dutena, ordea, haien izaera arrazista, klasista, eta horrenbestez diskriminatzailea da.

Ikerketa honetan aurreiritzi, estigma eta diskriminazio-bide horiekin guztiekin apurtzeko bideak aztertuko ditugu. Era orokorrean esanda jendarte eraldaketarako bideak aztertuko ditugu. Lehen pausua oraintxe eman dugu kulturaren izaera sinbolikoa ikertuz. Bide horretan, soziologiak sen arruntean txertaturiko kodeak aztertzeko sekulako bidea dauka; etnometodologia, izan ere. Etnometodologia, subjektuen eguneroko ekintzak bideratzen dituzten sinboloak agerian utzi eta zalantzan ipintzeko bidea da. Noski, kasu honetan, ez da nahikoa aniztasunaren kudeaketa gizabanakoen izaera eta ekintza indibidualen bitartez aztertzea; gizartea bera subjektu bezala ulertzea ere ezinbestekoa da, sistema neoliberala bera aniztasunaren kudeaketan duen eragina ikertzea eta zalantzan jartzea garrantzitsua den bezala. Hala ere, bada hasiera bat.

2.2.Migrazioen Paradigma Aldaketa: XIX. mendetik XXI. mendera

> La migración que da lugar a la calificación de las personas como emigrantes o inmigrantes, es aquella en la cual el traslado se realiza de un país a otro, o de una región a otra lo suficientemente distinta y distante, por un tiempo suficientemente prolongado como para que implique vivir en otro país, y desarrollar en él las actividades de la vida cotidiana. (Grinberg eta Grinberg, 1984; hemen aipatuta: Micolta, 2005, 61 or.)

Autore anitz izan dira *migrazioa*-ren kontzeptualizazioa garatu dutenak. Gaur egun, Grinberg eta Grinberg-ek burututako definizioak, beste hainbatek bezala, migrazio-prozesu orok izan behar dituen baldintza objektiboak biltzen ditu. (1) Mugimendu espaziala egon behar du. Hau da, ekologikoki aldaketa bat egon behar da zonalde geografiko batetik bestera. Eremu geografiko horiek, gainera, “gutxieneko” urrunera bat eta ezberdintasun identitario bat izan behar dute. Urrunera aldetik migrazio-prozesuak, gaur egun, herrialdeen artekoak, eskualdeen artekoak eta azpieskualdeen artekoak izan daitezke. Alde batera uzten dira, hortaz, herrialde baten baitan, Estatu-Nazio gisa ulerturik, gauzatzen diren barne-migrazioak, XX. mendean zehar Espainiar Estatuan, esaterako, hainbesteko garrantzia izan zutenak. (2) Denbora aldetik ere migrazioek denbora tarte “jakin” baterako egonaldia suposatzen dute. Emigrazioak ez ditu turismoa edo bidai komertzialak barnebiltzen. (3) Esparru sozialean, migrazioak, migrariak jatorrizko lurraldean gauzatzen zituen eguneroko ekintzak helmugako lurraldean burutzea eskatzen du. Horrez gain, sozialki, eta horrenbestez kulturalki ere, aldaketa bat suposatu behar du. Aldaketa kulturalaz ari garenean ez gara paradigma identitario oso baten aldaketaren inguruan ari. Azpieskualdeen arteko migrazioetan, adibidez, ez da nazioarteko kulturaren aldaketa suertatzen, baina maila mikroago batean, eguneroko bizitzari dagozkion errutinen eta baita erritualen aldaketak egon daitezke; ohituren, estetikaren, modaren, harreman sozialen, eta abarren

aldaketak, izan ere. Adibide bezala Europako -eskualde gisa ulerturik- bi azpieskualdeen arteko migrazioak ditugu. Hegoaldeko Europatik -hala nola, Italiatik- Mendebaldeko Europara -Alemaniara, esaterako- migratzean, alde batetik errealitate kultural nazionalaren aldaketa suertatzen da, baina ez da balio-sistema neoliberalean transformaziorik ematen. Migrazio-prozesu honek, ez du beraz, eskualdeen arteko migrazioek dituzten konplexutasuna. Balio-sistemaren aldaketa minimo horrek, azalaren kolorearekin batera -generoaz eta beste hainbat ezaugarriez gain-, erabat erraztu egiten du migrariaren integrazio prozesua. Izan ere, gehienetan, ez dira lurralde mendebaldarren arteko migrazioetan integrazio prozesuen beharrik aldarrikatzen. Migraria jada, ezberdintasun kultural txiki batzuez gain, badu helmugako gizartean ordezkagarritasun handia. Migraria jada moralitate neoliberalak ezarritako kodeetan sozializatu da. Izan ere, migrariak berak -Europako kasuan, noski- moralitate neoliberala produzitu egin du. Horrekin batera, migrarien integrazio-prozesuaz ari garenean, garrantzitsua da ulertzea migrazio-prozesuak ez direla emigrazioarekin hasten ezta immigrazioarekin amaitzen ere. Ikerketa honetan, integrazioa aldarrikatuko dugu migrazio-prozesuen azken etapa bezala, eta horrez gain, etaparik garrantzitsuena bezala. Izan ere, ez dago migrazio-prozesu osoa betetzerik aukera berdintasunean oinarritutako integrazio barik.

Migrazio-prozesuak ez dira betidanik era berean garatu. Izan ere, migrazioak datu estatistikoen bitartez biltzen hasi zirenetik, XIX. mendetik, aldaketa nabariak egon dira. Aldaketa guzti horiek, XXI. mendeko jendarte mendebaldar plurikulturalean traduzitu egin dira. (1) XIX. mendean bi migrazio fluxu ziren nagusi. Alde batetik metropolietatik kolonietara burutzen zena; adibidez, Espainiar Estatutik Argentinara edo Frantziatik Afrikako iparraldera. Bestetik, Europatik Amerikako Estatu Batuetara (AEBra) ematen zena. Azken hauek, AEBak, izan dira historikoki immigrazio gehien jaso duen herrialdea. (2) XX. mendean, II. Mundu Gerra bukatu

ostean, migrazioen paradigman aldaketa bat egon zen. Europan industrializazio garaia gauzatzen ari zen, baina ez Europako herrialde guztietan aldi berean. Europako erdi eta iparraldeko herrialdeak, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua buru, industrializazioaren aitzindariak izan ziren. Hori dela eta, Europa-Asiako hegoaldetik Europa industrializatura migrazioak izan ziren nagusi; Espainiar Estatutik, Italiatik, Portugaletik, Greziatik, Alemania edo Frantziara. (3) XX. mendea joan ahala, 70eko hamarkadan bereziki, batez ere krisi ekonomikoak zirela eta - AEBko inflazioa gelditzeko politika ekonomikoak eta petroleoaren krisia adibide-, industrial migratzaileak euren herrialdeetara bueltatu ziren. Hortaz, Europako hegoaldeko migrari horietako askok euren herrialdeetara mugitu ziren berriz. Espainiar Estatura, Italiara, Portugalera, eta abarrera, izan ere. Honekin batera, AEBra mugitzen ziren pertsonen kopurua ere ez zen gutxitzen ari. Oraindik ere, Europako zein Latinoamerikako migrarien kopuru handia jasotzen zuten AEBek. (4) XX. mende bukaeran eta XXI. mende hasieran gaur egungo migrazio-prozesuaren hastapenak burutzen hasi ziren. Munduko herrialde, azpieskualde eta bereziki eskualdeen arteko desoreka sozioekonomikoek mundua bi zatitan banandu zuten -edo hirutan-. Lehen eta Hirugarren Munduak bereiztu egin ziren, Gerra Hotzaren galtzaile izan ziren lurralde komunistekin batera, Bigarren Munduarekin batera. Lehen Mundua mendebaldea izango litzateke, Europa, Ipar-Amerika eta Australia, izan ere. Hirugarren Mundua, aldiz, Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako zenbait lurralde izango lirateke. Gauzak horrela, XX. mendearen bukaeran, 90. hamarkadan gehienbat, lurralde azpigaratu horietatik, Hirugarren Mundutik, lurralde garatuetarako, Lehen Mundurako, migrazio-prozesua gauzatzen hasi zen.

Gaur egungo, garai posmodernoko, beranduko modernitateko, migrazioen konplexutasuna azaltzeko ezinezkoa da lege orokor bat erabiltzea. Izan ere, migrazio-teoria anitz erabiliz, soilik, heldu gaitezke egungo egoeraren erradiografiarik gertuena lortzera. Hortaz, teoria

neoklasikoa, *push-pull* teoriak eta materialismo historikoaren bitartez migrazioak azaltzen dituzten teoriak beharrezkoak zaizkigu errealitatetik ahalik eta gertuen egoteko. (1) Teoria neoklasikoak migrazioen oinarri ekonomikoa azaltzen digu. Migrazioa, munduko herrialde, azpieskualde eta eskualdeen arteko desoreka ekonomikoak kontuan hartuz, migrariak lurralde azpigaratu batetik lurralde garatu batera kontzienteki garatutako prozesu bezala aurkezten zaigu. Teoria honek migrazioetan alde objektibo bat dagoela azaltzen digu, nahiz eta eremu horretan baldintza ekonomikoak bakarrik sartu. Teoria neoklasikoaren adibide argia Afrikako iparraldetik Europara burutzen diren migrazioak lirateke, edo Mexikotik AEBra egiten direnak. Migrariek, euren eskualdeetako egoera ekonomikoa -Afrika edo Latinoamerikako egoera ekonomikoa- eta helmugako eskualdeko egoera ekonomikoa -Europa edo Ipar-Amerikako egoera- balantza batean ipiniz emigratzeko erabaki arrazionala hartzen dute, faktore ekonomiko objektiboak ez diren beste faktoreak kontuan hartu gabe. 1. taulak azpieskualdearen maila sozioekonomikoaren eta migrazioaren hartzaile izatearen arteko korrelazioa azaltzen digu 1995. urtetik 2000. urtera egondako migrazio aldaketak kontuan harturik (Colomo, 2001, 65 or.).

1 Taula

Eskualdearen maila sozioekonomikoaren eta migrazioaren hartzaile izatearen arteko korrelazioa (1995-2000)

Munduko azpieskualdeak faktore sozioekonomikoaren batez bestekoaren arabera antolatuta	Faktore sozioekonomikoaren notazioen batez bestekoa	Urteko transferentzia tasa
Japonia	-1,63	0,91
Mendebaldeko Europa	-1,57	3,05
Iparraldeko Europa	-1,4	1,46
Ipar-Amerika	-1,29	3,87
Austalia-Zelanda Berria	-1,21	4,46
Ekialdeko Europa	-1,09	0,78
Hegoaldeko Europa	-1	1,51

Iturria: Colomo, 2001, 65 or.

Taula honen bitartez, zentzu batean baldin bada ere, teoria neoklasikoaren postulatu nagusia onartu dezakegu. “Faktore sozioekonomikoaren notazioen batez bestekoa”-n -1etik beherako puntuazioek lurralde garatuenei erantzuten dio. Colomo-k eskualde horiei bi ezaugarri nagusi atxikitzen dizkie: neurrizko garapen sozioekonomikoa edo garapen sozioekonomiko altua eta egoera demografiko geldia (Colomo, 2001, 47 or.). Horrenbestez, munduko eskualde garatuenek transferentzia-tasa -emigrazio eta immigrazioen arteko aldea- positiboa dutela ikusi dezakegu. Munduko eskualde guztietako transferentzia-tasak gehituko bagenitu 0 eman beharko lukeela ulertzen badugu, eskualde mendebaldar hauek emaitza positiboak eman ditzaten beste eskualde batzuek emaitza negatiboak izan beharko lituzkete, eremu azpigaratuek, izan ere. Laburbilduz, XX. mende bukaeran eta gaur egunera arte, estatistikoki, teoria neoklasikoaren oinarri nagusia frogatu dezakegu. Herrialde, azpieskualde edo eskualde garatuek zonalde geografiko azpigaratuen immigrazioa jasotzen dute.

(2) *Push-Pull* teoriek migrazio-prozesuetan aldentze eta erakartze faktoreak daudela azaltzen digute. Hortaz, atea zabalik uzten digu desoreka ekonomikoez gain beste aldentze eta erakartze faktoreak daudela suposatzeko. Hau da, jatorrizko zonaldearen egoera sozioekonomiko larriaz gain -aldentze faktorea izango litzatekeena- eta helmugako lurraldearen egonkortasun ekonomikoaz gain -erakartze faktorea izango litzatekeena-, posible dugu beste aktore, agente eta faktore batzuk ere aztertzea. Izan ere, emigrazioa erabaki guztiz arrazionala balitz nola azaldu lurralde azpigaratuen biztanleriaren kopuru askoz ere handiagoa ez emigratzea? Zergatik espazio geografiko berdinean bizi diren eta antzeko egoera sozioekonomikoa duten bi indibiduoek ez dute erabaki berdina hartzen, euren egoera eta baldintza objektiboak berdinak baldin badira? Galdera hauen bitartez migrazio-prozesuetan objektiboa ez den beste ezaugarri bat dagoela

ondorioztatu beharko genuke. Migrazio-prozesuak ez direla jatorrizko lurraldearen garapen ekonomikoaren porrotagatik bakarrik gauzatzen, baizik eta gizabanakoek porrot horretaz duten pertzepzioagatik (Colomo, 2001, 69 or.). Horrenbestez, *push-pull* teorien bitartez, migrazioek faktore objektiboez gain faktore subjektiboak ere badituztela, eta gainera, faktore subjektibo hauek ez daudela errealitate objektiboaren menpe onartuko dugu, nahiz eta errealitate hori existituko ez balitz pertzepzio subjektiboak ere existituko ez liratekeen.

(3) Azkenik, materialismo historikoan oinarritutako migrazioen inguruko ikuskerek migrazio-prozesuen izaera historiko eta dinamikoa aldarrikatzen dute, eta aldi berean ere, desoreka sozioekonomikoen bidezko migrazioa. Hau da, herrialdeen, azpieskualdeen eta eskualdeen arteko desoreka sozioekonomikoak direla eta, zonalde azpigaratuek lan-indar soberakina dute -lan egiteko adinean dauden indibiduo asko lan merkatutik kanpo-, eta aldiz, eremu garatuek -batez besteko adin altua dela eta- lan-indarra behar dute. Hortaz, zentzu honetan, teoria neoklasikoaren ondorio nagusia onartzen da. Baina, horrez gain, zeintzuk dira gaur egungo beste migrazio joerak? Zeintzuk dira XX. mendean aurreikusi ez ziren migrazio motak? Materialismo historikoak migrazio eta integrazio prozesuetan gauzatzen ditugun konparaketa estatikoak ekiditzea du helburu. Migrazio zein integrazio prozesuak garapen dinamikoa duten prozesu bezala hartu behar dira. Era horretan, garai historiko edo kultura zehatz bateko paradigmak unibertsalizatzea ekiditu egiten da. Izan ere, esaterako, ez da posible kultura protestante baten egitura epaitzea perspektiba hedonista batetik, kultura arabiarra balio-sistema neoliberaletik epaitzea ezinezkoa den moduan. Hurrengo kapitulu batean kulturaren unibertsalizazioak dituen mugak eta potentzialtasunak aztertuko ditugu, aniztasun kulturalaren kudeaketarako ezinbestekoa izanik. Aurreko galderara bueltatuz, ziurtatu dezakegu, XX. mendeko migrazio-teoria nagusienek ez zituztela migrazio ekologikoak ezta errefuxiatuen

migrazioak aurreikusi. Siriako kasuan, migrazio-netoaren tasari erreparatzen baldin badiogu, hau da, immigranteen eta emigranteen arteko ezberdintasunari erreparatzen badiogu, 2005-2010 urteen artean 3.7ko migrazio-neto tasa positiboa izan zuen. Horrek, Siriak emigrante baino immigrante gehiago izan zituela ondorioztatzen du. Hala ere, 2010-2015 eta 2015-2020 urteen artean -54.7ko eta -24.1eko -hurrenez hurren- migrazio-neto tasa izan zuen (Portal de Datos Mundiales sobre la Migración, 2020). Estatistiko horiek errefuxiatuen krisiaren adierazgarri dira, krisi sozioekonomikoaz aparte krisi politiko bati erantzuten diotenak, eta beraz, aurreko teoriek aurreikusi ez zituztenak.

Hori dela eta, Javier Colomo-k argitaratutako “Desarrollo, subdesarrollo y migraciones internacionales a comienzos del siglo XXI” ikerketak 2025. urteari begira egin zituen estimazioak badirudi pixka bat labur geratuko direla, nahiz eta nahiko ondo bideratuta doazen. Estimazio horien arabera 2025ean, Europako biztanleriaren immigrante-tasa %11,87koa izango zen, Europa mendebaldarrean -azpieskualde gisa ulerturik- %18,03koa izango zen bitartean (Colomo, 2001, 70 or.). Gaur egun, 2019an, Europako biztanleriaren %11a eta mendebaldeko Europaren biztanleriaren %15,6a etorkinez osaturik dago (portal de Datos Mundiales sobre la Migración, 2020).

Laburbilduz, migrazio orok bi oinarri nagusi ditu: oinarri estrukturalak izendatuko ditugunak (objektiboak) eta oinarri pertsonalak (subjektiboak). Hurrengo diagrama honen bitartez era argiagoan ulertuko dugu.

1 Irudia

XXI. mendeko migrazio-prozesuen oinarriak.

Oinarri estrukturalak (objektiboak)

- Push: (1) jatorrizko lurraldearen: egoera ekologikoa (hondamendi naturalak adibide), (2) maila sozioekonomikoa,(3) gatazka politikoak (errefuxiatuen krisia).
- Pull: helmugako lurraldearen: (1) egoera ekologikoa, (2) maila sozioekonomikoa, (3) egoera politikoa.

Oinarri pertsonalak (subjektiboak)

- Egoera sozioekonomikoaren pertzepzioa.
- Egoera politikoaren pertzepzioa.
- Pertzepzio mikro-mesoak: arrazoi familiarrak, indibidualak, eta abar.

Iturria: norberak egina.

2.3.Migrazioa eta Segurtasuna

Migrazio-teoria neoklasikoaren ikuspegitik ez litzateke migrazio-prozesuetan arazorik sortu beharko jatorrizko eta helmugako gizarteen artean ezta, maila makroan, Estatuen eta sistema kapitalistaren egituraketan ere. Hau da, helmugako lurraldeek, euren jaiotze-tasa baxua eta zahartze-tasa altua dela eta, populazio aktiboa beharko lukete soldatapeko lan guztiak betetzeko. Maila enpirikoan, sistema kapitalistaren funtzionamendua guztiz ezberdina da eta, horrek, populazio immigrantean zein autoktonoan eragin zuzena du. (1) Hasteko, maila mikroan, langileen mailan, gizabanako batzuen eta besteen sozializazio prozesuak direla eta -herrialde edota eskualde ezberdinetako sozializazioak izan dituztelako, estratu sozial ezberdinetan sozializatu direlako, hizkuntza edo hizkera ezberdinetan sozializatu direlako, eta abar- langileek balio-sistema eta kode etiko ezberdinak eraikitzen dituzte. Hortaz, esaterako, maila sozioekonomiko erdi-altuan sozializatutako eta Espainiar Estatuan jaiotako langile marxista batek multinazional jakin batean –“Zara” adibide- lan ez egitea erabaki dezake, bere printzipio ideologikoetatik at dagoela ulertuz. Aldiz, ideologikoki zein jaiotzez ezaugarri antzekoak dituen, baina maila sozioekonomiko baxuan sozializatu den eta beraz, baliabide ekonomiko eskasak dituen, egoera familiar desorekatua duen eta hizkuntza edo hizkera formaletik urrun dagoen,

gizabanako batek multinazional horretako enplegua har dezake, -nahiz eta maila teorikoan, logika neoliberalaren printzipioetatik lehen subjektua bezain aldendurik egon-, bere bizi-baldintza efektiboak hobetzen dituelako epe laburrera. Hori bera immigranteekin gertatuko da. Immigranteek biztanleria autoktonoak hartzen ez ditugun enplegu anitz betetzen dituzte; hala nola, nekazaritza lanak eta lan ez-kualifikatuak, bai industrian eta baita zerbitzuen arloan ere. Horri, gizarteko estratu batzuen etsipena -egoera zaurgarrian dauden hainbat kolektibo, esaterako- eta intelektual talde batzuen diskurtso populista xenofoboak -VOX adibide , Espainiar Estatuaren baitan- gehitzen badizkiogu, migrazio eta segurtasunaren paradigmaren aurrean aurkituko gara. “Gorrotoaren sozializazioa”-ren aurrean, izan ere (Sanmartín, 2012, 180 or.).

Zein da, bada, egoera honen alderdi makroa? (2) Sistema kapitalistaren funtzionamendua bera eta, honek Estatu-Nazioekin duen harreman estua. Zentzu honetan, Marxen “ejército de reserva” (1867) kontzeptuaz baliatuz era argian deuseztatu daitezke migrazio-teoria tradizionalen postulatuak eta baita ongizate-estatuarena ere -hein handi batean baldin bada ere-. Teoria neoklasikoaren migrazio-fluxuen adierazpena eta ongizate-estatuaren helburu nagusia dela eta, badirudi enplegu betea bermatzea posiblea izango litzatekeela eta, migrazio-prozesuek ez luketela errealitate hau baldintzatu beharko. Baieztapen hau XXI. mendeko errealitate materialetik oso urrun dago eta, posible litzateke esatea aurreko mendeetako errealitate materialetatik urrun zegoela ere. Hau da, ezinezkoa da gizarteari enplegu betea bermatzea, ez baita merkatu kapitalistaren logika espekulatiboaren parametroen barnean sartzen. Hortaz, migrazioen inguruko estrategia geopolitiko zorrotzagoak aurrera eramango balira ere -migrazioak guztiz geldituz ere- ez luke enplegu eta desenplegu-tasan eragin handirik izango eta, noski, estrategia hura ez litzateke enplegu betean traduzituko.

Gauzak horrela, migrazio-prozesu posmodernoen aniztasunak -ekonomikoak, politikoak eta ekologikoak- estrategia geopolitikoak indartu ditu, *realpolitik*-era bueltatu gara (Rivas, 2006, 269 or.). Horrekin batera, gaur egungo immigranteen lotura pertsonalak direla medio, zentzu batean bada ere, mendebaldeak, immigranteak asimilatzeko ahalmena galdu du (Weber, 1960). Hortaz, Estatu mendebaldarrek, euren ordena soziala arriskuan ikusten dute eta, beraz, barne-segurtasuna bermatu nahi dute, noski, kanpo-mugak indartuz. Era horretan, immigrazioa naturalizatu egiten da, hau da, despertsonalizatu egiten dira migratzaileak eta, objektu kuantitatibo gisa hartzen dira soilik, immigrante bakoitzaren espezifikotasunak kontuan hartu barik. Zenbaki hutsak balira bezala, izan ere. Hortaz, emigrazioa sortzen duten kausak, oraindik ere, ez dira migrazioen analisi esparru garrantzitsuenak. Izan ere, "kausek ez dute barne-segurtasuna, ordena publikoa eta bizikidetza zalantzan jartzen" (Rivas, 2006, 275 or.).

Barne-segurtasuna mantentzeko kanpo-mugen inguruko politika zorrotz horiez gain, badira ere estatuaren barnean agertzen zaizkigun barne-mugak. Horiek dira, izan ere, diskriminazio kulturala -edo arraziala- sortzen dutenak. Immigrantea, herritartasuna izan edo ez izan, legala edo *ilegala* izan -nahiz eta *ilegal* hitza migratzearen ekintzari esan behar diogun eta ez subjektu migratzaileari-, helmugako lurraldean urte betez edo hamar urtez egondakoa izan, helmugako lurraldeko hizkuntza jakin edo ez jakin, eta abar, beti jarraituko du immigrante izaten eta, horri gainera jatorrizko lurraldearen izaerari egokitzen zaizkion beste hainbat ezaugarri gehitzen badizkiogu -itxura arrazial edo etnikoa, adibidez-, barne-segurtasunari begira diskriminazioak jasango ditu beti. Jarrera diskriminatzaile horien artean inplizituak eta esplizituak direnak ditugu. "Hogar Social Madrid"-ek "espainiarrei" banatzen dizkien ogitartekoetatik, igerileku publiko batean "hiyab"-arekin igeri egitea debekatuta egotera. Barne-muga horiek guztiak, estrategia geopolitikoak bezain indartsuak dira kulturen arteko

ezberdintasunak, desorekak eta hegemoniak mantentzerako orduan. Zentzu honetan, David Harvey-k (2012), hirietan sortzen diren *bereizketa markek*, marka edo identitate horri egokitzen ez diren subjektuen -subjektu gizatiarrak immigranteen kasuan, baina baita subjektu ez-gizatiarrak sartzen ditu bere analisian- deuseztatzea sorrarazi dezakeela ondorioztatzen du (162 or.)

Ideologia eta politika xenofoboen indartze honek ondorio batera garamatza: sistema kapitalistaren eta moralitate neoliberalaren nolabaiteko krisia. Migrazioaren indarrak, bai kuantitatiboki eta baita honek hartzen dituen norabide anitzengatik -emigrazio kausetan eta aniztasun kulturalean, bereziki-, zalantzan jartzen du, ez gizartearen egitura eta interakzio sozialak, baizik eta sistema kapitalistaren eta kultura neoliberalaren egitura. Hortaz, zer gertatzen da maila mikroko kulturekin, hau da, kultura nazionalekin -Euskal kultura edo Gaztelako kultura adibide-? Aniztasun kulturalak zalantzan jartzen al ditu kultura horiek? Ikerketan zehar galdera horiek erantzuten saiatuko gara. Momentuz, identitate kulturalek desorekak sortzen dituztela onartu dezakegu; baina Pedro Rivas-ek (2006) dioen bezala “el único nosotros válido es la especie humana, que no puede contraponerse a sí misma. Sangre, lengua, origen o religión son formas culturales, pero no tienen por qué se identitarias” (277 or.).

2.4.Erlatibismo kulturala eta giza eskubideak: kultura eta zientzia

Slavoj Zizek-ek (1998) bi identifikazio kultural maila bereizten ditu. (1) Lehen mailakoa, hau da, azpikulturak eta kultura nazionalak; gizabanakoen lehen mailako identitatea finkatzen duena, izan ere. (2) Bigarren mailakoa, Estatu-Nazio logikari erantzuten diona; balio-sistema neoliberala, izan ere. Garai posmodernoan, bigarren mailako identifikazioak oionarrizko bihurtu dira eta, beraz, geure identitate kulturala deslokalizatu eta homogeneizatu egin da, kultura mendebaldarra sortuz. 1948ko abenduaren 10ean kultura mendebaldarraren objetibazioa gauzatu

zen, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala-ren -hemendik aurrera GEAUaren- bitartez kultura mendebaldarra unibertsalizatuz, hau da, partikularitate mendebaldarrak globalizatuz. Pedro Rivas-ek (2006), mendebaldeak "nazioarteko bidezko ordena euren balio kultural eta moralen eratorpen gisa" ulertu zuen (272 or.). Hala ere, nahiz eta GEAU perspektiba mendebaldar, maskulino, zuri eta heterosexual batetik sortua izan, ez al dauka potentzialitate sozial eta integratzailerik? Non dago askatasun indibidualaren eta errealitate materilaren arteko muga? Lola Cubells-ek (2018) GEAUen erabileraren inguruan hausnartzera bideratzen gaitu. Bide horretan, "es necesario diferenciar cuándo los derechos humanos son empleados para imponer una manera de ver el mundo o cuándo se convierten en arma contrahegemónica contra los abusos del poder gubernamental o transnacional" ("Universalizar: Síndrome de Occidente" sekzioa, 7. parrafoa). Hortaz, ezin dugu onartu "interes partikularrak unibertsalizatu" bakarrik egiten direnik (Zizek, 1998: 139); ez baita hori, gaur egun, GEAUen erabilpen bakarra.

Ideologia politiko ezkertiarrek, gaur egun, aniztasun kulturalaren kudeaketan galdu egin dira, indarra galdu dute, heterogeneizatu egin dira. Alde batetik, ezker moderatuenak biolentzia era guztiak -sinbolikoa kanpo utzita- gaitzesten ditu. Antonio Maestre-k (2017) horrela dio:

> La progresía española…corre a denunciar cualquier conato de violencia sin pararse a valorar cuál es su contexto… No es lo mismo que un nazi agreda a un negro por su color que el hecho de que un antifascista agreda a un nazi que se dedica a apalear a minorías y colectivos vulnerables. (Maestre, 2017; hemen aipatuta: Bernabé, 2018, 180 or.)

Era horretan, maila berdinean kokatzen dira jarrera xenofobo eta kontra-xenofoboak; "mutur guztiak berdinak dira". Bestetik, ezkerrerago kokatzen diren gizarte zibileko partaide batzuek erlatibismo kulturalaren aldarrikapen zorrotza egiten dute, aukeratzeko askatasun indibiduala oinarri bezala kokatuz eta, ondorioz, materialismo historikoa ukatuz -nahiz eta hau hasierako

helburua ez izan-. Zentzu horretan, hurrengo hau litzateke geure buruari egin beharko geniokeen galdera: “¿Desde cuándo la izquierda analiza las decisiones humanas desligándolas de su contexto material?” (Bernabé, 2018, 222 or.). Korronte feminista batzuek *hiyab*-aren erabilera kontrabotere gisa aldarrikatu dute, jarrera xenofoboen aurrean identitate kulturalaren sendotzea adierazten duen ekintza gisa ulertuz. Ezkerrak, ideologia liberal-faxistekin maila berdinean borrokatu nahian potentzialitatea galdu egiten du. Ezkerrak ezin ditu sinismen erlijiosoak errealitate materialen gainetik jarri. *Hiyab*-aren logika, logika diskriminatzailea da -matxista, izan ere-; eta, hau onartzeak ez du esan nahi epe laburrera debekatu behar denik, ezta islamak diskriminazioak ahalbidetzen dituenik ere. Baizik eta, sistema erlijiosoek eta estrategia pseudozientifikoek zientzia gainditu ezin dutela. Pseudozientzia ezagutza zientifikoaren menpe egon behar dela, izan ere, gizartearen kontzientzia eraldaketarako bidean, betiere.

Honek guztiak, zalantza anitz pizten dizkigu. Ikerketan zehar *ezagutza kokatua* aldarrikatu dugu eta, *erlatibismo kulturala* kritikatu ere. Hortaz, partikularrtasunen unibertsalizazioa deuseztatu dugu, baita sinismenak errealitate materialetik aldendu ere. Hortaz, lehen mailako identitate kulturalak -azpikulturak eta kultura nazionalak- homogeneizatu gabe, posible litzateke gizakiaren helburu komuna identifikatzea? Edo, gutxienez, gizaki globalizatuaren helburu komunak identifikatzea? Rivas-ek (2006) dio “gudetatik libre bizitzeko desira, zoriontasuna lortzeko gogoa bezain unibertsala dela” (278 or.). Guk zoriontasuna hartuko dugu gizartearen helburu unibertsal gisa; gizakiaren beharrizan hedonistak asetzen dituena, izan ere. Zoriontasuna eskuratzeko bidean integrazioa ezinbestekoa da, komunitate eta gizarte baten parte sentitzea ezinbestekoa da, elkartasuna eta aukera berdintasuna oinarri.

3. Metodologia

Errealitate soziala aztertzerako bidean hainbat maila kontuan hartu behar ditugu. Ikerketa honen diseinuaren nondik norakoak Jesús Ibáñez-en (1986) perspektiba metodologikoen bitartez definitu dira: perspektiba distributiboa, perspektiba estrukturala eta perspektiba dialektikoa. Errealitatea ulertu eta aztertzeko hiru era hauek tipo ideal bezala hartuko ditugu. Hau da, osagarritasuna izan dezaketen metodoak izango dira. (31-66 orr.)

Hasteko, maila epistemologikoan, ikergaia zientifikoki agertu behar da. Izan ere, ikerketaren hastapenetan maila ideologikoan planteatzen dugun problematikak maila zientifikoari erantzun behar dio, hein batean baldin bada ere, ikerketaren hasierako neutraltasuna bermatzeko. Halatan, aniztasunaren kudeaketa jakin-min ideologiko batetik sortutako ikergaia izatetik beharrizan sozial bat asetzerako pausua zergatik gauzatzen den azaldu beharko luke maila epistemologikoak. Zentzu horretan, maila teorikoan (1) sen arruntean txertaturik dauden sinbolismoak, kodeak, Bourdieu-ren (1997) “habitus”-ak, oinarri materialen gainetik dauden aztertuko da. Oinarri materialen gainetik aritzen naizenean, bereziki, “errealitate” dogmatikoen eta errealitate materialen arteko bereizketa egiten dut. Era horretan, errealitate dogmatikoen barnean justifikazio zientifikoa ez duten jarrerak eta sinesmenak egongo lirateke; hala nola, sentimendu erlijiosoa, nazionalismoa edo darwinismo soziala errealitate dogmatikoen esparruan barnebilduko genituzke. Bestetik, errealitate materialen barnean gizartearen bizi-baldintza duinak asetzeko beharrak eta baliabideak sartuko genituzke, nahiz eta hauek ere, historiko eta kulturalki eraikiak izan. Kasu honetan, kultur integrazioa bermatu beharko lukeen errealitaterik garrantzitsuena aukera berdintasunaren printzipioa izango litzateke. Honekin lotutako hipotesia izango litzateke, gaur egun, errealitate dogmatiko askok kultura minorizatuen eta, horrenbestez, zaurgarrien, aurka egiten dutela. Hortaz, dogma horiek kultura hauen errealitate materialak

ikusezin bilakatzen dituztela. (2) Horrekin oso era estuan loturik, sekularizazio erlijioso mendebaldarraren garaian, dogma berriak -arrazialak, kasu honetan- zein eratan barneratu ditugun azaldu beharko genuke kulturartekotasuna lortzerako bidean.

Maila praktikoan, ikerketa aurrera eramateko arrazoirik nagusiena (1) gizartearen- bereziki kolektibo zaurgarri espezifiko baten, jatorri atzerritarra duten etorkinen (bigarren belaunaldiak barne)- bizi-baldintza efektiboak hobetzeko aukerak zeintzuk diren aztertzea da. (2) Horrez gain, lehen esan bezala, hasierako jakin-mina zientzia bihurtzea ezinbesteko helburua izan behar da ikertzerako orduan. "… no es lo mismo decir "se debe hacer así porque yo creo que es lo mejor" que "se debe hacer así porque así lo *demuestra científicamente* este informe que ocupa diez tomos y ha costado diez millones de pesetas"" (Ibáñez, 1986, 34 or.).

Maila teoriko eta praktikoan lortu nahi ditugun xedeak laburbiltzeko gizakiaren eraketari erreparatu behar diogu. Izan ere, ezberdintasun sozialak -kasu honetan, bereziki arraza bidezkoa- zergatik existitzen diren azaltzerako orduan, oraindik ere, aspektu naturalista eta biologizistaren bat agertzen zaigu. Ikerketa honen premisetako bat gizakiaren izaera sozial natural guztiak ukatzea da. Hau da, biologikoki -jaiotzez- gizakia animalia besterik ez da. Animalia horrek sozializazio prozesu iraunkor baten bitartez gizaki bezala eraikitzen da. Hortaz, Nietzsche-ren giza-natura, Hobbes-ek aldarrikatutako *homo homini lupus* eta baita Rousseau-k defendatutako gizakiaren ontasun naturalaren aurka ere egin beharko genuke azterketa honetan. Zentzu honetan, adibide gisa, generoa izango litzateke jasotzen dugun lehen estigma.

Behin ikerketaren zergatia azalduta, norentzat eta nondik egiten dugun adierazi beharko genuke. Horretarako, Piotr Sztompka-ren *Gizarte prozesuen tipologia* erabiliko dugu (Sztompka, 1993, 25-34 orr.). (1) *Maila mikroan* eremu mendebaldarreko gizarte plurikulturala eratzen duten subjektu gizatiarrei -indibiduoei- zuzenduta dago; noski, ez bakarrik hauei subjektu isolatu gisa,

baizik eta, bereziki, hauen arteko eguneroko interakzio eta harremanei. (2) *Maila mesoan* instituzio sozialei bideratuta dago. Honen barnean hezkuntza-sistema izango litzateke garrantzitsuena, bereziki migranteen bigarren belaunaldiaren integrazioari dagokionez. Eskoletan sortzen diren estereotipoak, espazioaren kudeaketa, rol sozialak, eta abar. (3) *Maila makroan* instituzio politikoak eta egitura juridikoa kokatuko genituzke. Ikerketa honen helburuetako bat maila instituzionalari erreferentzia egiten dion heinean, ezinbestekoa dugu politika sozialen bitartez kulturen arteko zubiak eraikitzeko. Beraz, indibiduoen erantzukizunez gain, instituzio sozial eta politikoen erantzukizuna ere aztertuko dugu. Egitura juridikoa ere instituzio politikoen maila berdinean kokatuko genuke. Era horretan, egitura jurisikoak integrazioa gauzatu -egunerokotasunean gertatzen diren harreman sozialak- eta objetibatuko -legediaren bitartez- luke.

Honekin batera, ikerlariaren posizio soziala zein den jakitea ere garrantzitsua da. Lehendabizi, ikerketa honetarako eremu mendebaldarra aukeratzeak oinarri material zehatzak izan ditu aurrekari gisa. Izan ere, XXI. mendean mendebaldean gauzatzen ari diren migrazioen heterogenitatea eta kantitatea espazio guztiz aproposa sortzen dute kulturartekotasun planak gauzatu eta kultur integrazioan aitzindari izateko. Gauzak horrela, ikerlariaren errealitatea honakoa da: gizona -edo gizon bezala eraikia-, heterosexuala, mendebaldarra, maila sozioekonomiko ertainekoa eta zuria. Hartzaileak, ezaugarri horiek guztiak kontuan izan behar ditu ikerketa irakurtzerako orduan. Izan ere, ikerlariaren kokapenak, kontziente edo inkontzienteki ikerketaren emaitza bideratu dezakete. Laburbilduz, ikerketaren ondorioak epistemologia feministak, Donna Haraway buru (1995) aldarrikatutako “ezagutza kokatu” gisa adieraziko dira. Beraz, bai ikerketaren ekoizpena eta baita ondorioak ere kriterio horiei erantzungo diote.

Behin maila epistemologikoa definitu dugula maila metodologikoan eta helburuak betetzeko tekniketan murgilduko gara. Hasieran esan bezala, Ibáñez-en hiru perspektibak (distributiboa, estrukturala eta dialektikoa) erabiliko dira gure ikerketarako beharrezkoa den metodo eta teknikak aukeratzeko (Ibáñez, 1986, 31-66 orr.).

Kasu honetan, ikerketaren oinarrizko perspektiba estrukturala izango da. Ikerketak, aniztasuna kudeatzeko eta baita kulturartekotasunaren potentzialitateak aztertzeko maila teorikoan jardungo du gehienbat. Hortaz, ikerketa-unitateak -gizarte zibileko indibiduoak- ikerketa-objektu bezala jardungo dute; hau da, ez dira ikerketaren parte-hartzaile zuzenak izango. Perspektiba estrukturalaren aukeraketak, helburuak praxian traduzitzeko zailtasunari eta barnebiltzen dituen agenteen heterogeneotasunari -gizarte zibila, instituzio politikoak, eta akademiari- erantzuten dio. Izan ere, ikerketa honetan lortutako informazioa ondorengo ikerketa parte-hartzaile (IAP) bat aurrera eramateko aurrekaria izan daiteke eta, era horretan, perspektiba dialektikoa erabiltzeko aukera eman dezake, gure ikerketa-objektuak ikerketa hipotetiko horren ikerketa-subjektu bilakatuz. Perspektiba estrukturalaren teknikei dagokienez adituei egindako elkarrizketak erabiliko ditugu. Aditu hauek kultur eta migrazioen inguruko diskurtso akademiko-teoriko zein praktikoak helaraziko dizkigute. Zentzu honetan, elkarrizketatuak gaian adituak diren heinean elkarrizketatzailearekin subjektu-subjektu harremana izango dute, ahalik eta horizontaltasunik handiena bilatuz. Horrez gain, lehen mailako datu horiek ekoiztu aurretik, perspektiba estrukturalaren erabilpena egingo da, aurretik ekoiztutako datu estatistikoak biltzeko; era horretan, ikerketa testuinguratuko dugu. Bigarren mailako iturrien bitartez jasotako datu estatistikoak gizarte zibilak kultura ez-hegemonikoen inguruan dituen pertzepzioak biltzera eta EAEko migrazio errealitatea ezagutzera bideraturik egongo dira.

Laburbilduz, perspektiba estrukturalaren bitartez adituei elkarrizketa egingo zaizkie, eta horren aurrekari gisa bigarren mailako datu estatistikoak erabiliko dira, hausnarketak era egokienean justifikatzeko asmoz eta, hein batean baldin bada ere, ikergaiari buruzko hasierako neutraltasun bat bilatuz. Ikergaia objektibatuz, beraz.

Elkarrizketak direla eta, sei elkarrizketa bete dira. Ikerketa honetan hiru aktore nagusi definitu ditugunez -gizarte zibila, administrazio publikoa eta akademia-, aktore bakoitzeko bi elkarrizketa burutu ditugu. Gizarte zibilaren kasuan, hainbestekoa da honek barnebiltzen dituen mugimenduen heterogeneotasuna, zein, alde batetik, fundazio bateko bi kide elkarrizketatu ditugun eta, bestetik, elkarte bateko beste bi kide, euren perspektibek, ikerketari informazio baliotsua emango diolakoan. Eranskinetan elkarrizketen inguruko zehaztasun gehiago bildu ditugu, elkarrizketetarako gidoi orientagarria eta, elkarrizketatuen lan-esparruak eta eurei buruzko informazio esanguratsuena barne. Aldi berean, elkarrizketatuen gutxieneko konfidentzialtasuna eta anonimatoa bermatzeko asmoz, adituen izen-abizenak isilean gorde dira. Azkenik, ikerketari amaiera emateko asmoz AMIA analisi-teknika erabili da, aktoreen barne eta kanpo analisia eginda, hauen potentzialitateak eta zailtasunak agerian uzteko asmoz. AMIA, aktore horien eraldatzeari bideratutako hurrengo ikerketa baten hastapenerako aproposa izan daiteke. Aktoreen barne-antolamendua eraldatzeko, izan ere.

2 Taula

Metodologiaren egitura

Perspektiba Estrukturala	Perspektiba Distributiboa
Adituei elkarrizketak	Bigarren mailako datu estatistikoak biltzea

Iturria: noberak egina.

4. Analisia

Azterketa honen bidean, elkarrizketen analisia bi bloke nagusietan egingo da. Hasierako bat teorikoagoa izango dena eta aniztasun kulturala testuinguruan jartzea helburu izango duena eta, bigarren bat, ekintza-aktore eta espazioei buruzko informazio eta pertzepzioak bilduko dituena. Lehen blokeari dagokionez, sei azpisekzio izango ditu, XXI.mendeko testuinguru plurikulturalari buruzko pertzepziotik hasita, kulturartekotasunera bideratutako gizarte eraldaketa baten potentzialitate eta oztopoetara joango dena. Bigarren blokeak aldiz, lau azpisekzio izango ditu. Hasierako hirurek ikerketan zehar definitu ditugun aktoreekin bat egingo dute eta administrazio publikoen, gizarte zibilaren eta akademiaren eginkizunetan oinarrituko dira. Azkenik, laugarren azpisekzioak elkarrizketako azken planteamenduarekin bat egingo du. Azken auzi honetan, elkarrizketatuei aniztasun kulturalari buruzko egoera hipotetiko bat planteatu zaie -prospektiba teknika erabiliz-, gaur egungo egoera dela eta aniztasun kulturalaren kudeaketak planteatu ditzakeen trabak albo batean uzteko asmoz.

4.1.Aniztasun kulturala testuinguratzen

4.1.1.Aniztasun kulturalari buruzko pertzepzioa

Alde batetik, aniztasun kulturala esparru mendebaldarraren errealitate material gisa aldarrikatu denean eta, bestetik, aniztasun kulturalaren kudeaketa problematizatzeko lehen pausuak sortu direnean, anitza izan da elkarrizketatuen partetik sortu diren ildoak. Hauetako bat, ikerketan zehar behin baino gehiagotan planteatu dugun kulturen homogeneizazioari dagokio. Izan ere, eremu mendebaldarreko Estatu-nazioen aldetik izaera mendebaldar edo kultura mendebaldar bat sortu eta mantentzearen pertzepzioa agerian utzi dute, bereziki, gizarte-mugimenduetatik gertuen dauden elkarrizketatuek eta, ez agian, aniztasun kulturala ikuspegi instituzionalago edo formalago batetik hartzen dutenak.

"Kulturartekoa, "integratzailea" eta zabala izateko nahia aurkezten duen diskurtso bat existitzen da; hala ere, diskurtso horietan, kulturartekotasuna, pertsona zurien pertzepziotik aurkeztutako ezaugarri kultural esentzializatu batzuen irudikapenera mugatzen da." (E 1.1).

"Estatuak bilatu egiten duena bada estandarizazio kultural bat segurtasunaren eta elkarbizitzaren mesedetara." (E 6).

"Zentzu honetan, kapitalismoak hori da daukan arma, ezta? Kulturaren kudeaketa pertsonen izaera eta sen arrunta menperatzeko." (E 6).

"Zuritasunaren perspektibatik, geure aztarna arrazistek, kulturartekotasunaren inguruan dugun pertzepzioa baldintzatu dezakete". (E 1.1).

Adituek horrelako pertzepzioak aurkezten dituztenean, ezagutzaren ekoizpenaren izaera neutroa -baina inoiz ez objektiboa- era zorrotz batean aldarrikatu behar dugu. Izan ere, errealitatea ezagutzeko bidean, aurretik ekoiztutako ikerketetara jo behar dugu; kasu honetan, immigrazioari eta aniztasunaren kudeaketari dagozkion analisietara, datu estatistikoetara, izan ere. Horrek ez du esan nahi, inola ere, iritzi horiek ukatu behar ditugunik -alde batean-, ezta aniztasun kulturalaren egungo egoera idealizatu behar dugunik ere -beste aldean-. Hau da, alde batetik, plurikulturalitatearen kudeaketari dagozkion ikuspegi katastrofistetaik urrundu behar gara -egungo integrazioaren izaera asimilazionista ukatu gabe-, epe laburrera immigrarien errealitate materiala ez baitute hobetuko eta, beste aldetik, ikuspegi kultural mendebaldar hegemonikoaren immigrazioaren naturalizaziotik ere alde egin behar dugu, immigrariak pertsonak direla onartuz eta ez datu kuantitatibo hutsak, edota kontzientziarik gabeko elementuak.

"Otsailean bertan immigrazioa zegoen "de puta madre". Egon izan ez den moduan azkenengo urteetan. 2018an etorri ziren Euskal Herrira beste 17.000 pertsona gehiago, seguruenik iaz 2019an, heldu dira beste 20.000 gehiago. Orduan, eurek badakite datozela sektore prekario

batzuetara eta sektore prekario horietan seguruenik lor dezakete nolabaiteko integrazio bat". (E 3)

Beste pertzepzio batzuek, ikuspegi instrumentalistago bati erantzuten diote. Zentzu horretan, 2020.urteko otsailean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako EPIE 2018ak (Encuesta de Población Inmigrante Extranjera residente en Euskadi) egungo immigrazio egoeraren oinarriak begi bistan uzten dizkigu, nahiz eta egia den, honek ez digula kulturartekotasunaren bidean adierazpen totalik ematen, baina jatorri atzerritarra duen populazioaren integrazio materiala testuinguruan jartzeko oso lagungarria izan daiteke. 2.irudian ikusi dezakegun bezala, 2018an, jatorri atzerritarra zuen biztanleriaren %62a lan-merkatuan zegoen, 2014an lan-merkaturatzea %48,4koa zen bitartean. Horrek, enpleguaren bidezko integrazioa ezinbestekoa dela onartzen dugun heinean, aniztasun kulturalaren kudeaketaren bidean aurrerapausu ikaragarria daukagu.

2 Irudia

Jarduera Bidezko Erlazioa



Iturria: EPIE 2018, Eusko Jaurlaritza.

Zentzu berdinean, immigrazioaren aurkako zurrumurruetako bat diru-sarrerei erreferentzia egiten dio. EAEren baitan, ohikoa da gizartearen partetik aditzea immigrariek RGIaz baliatzen direla bizirauteko, lan-merkaturatzeko ahaleginik egiten ez dutela eta, askotan ere iruzurra egiten dutela. EPIE 2018a berriro ere abiapuntu bezala hartuta, 2018an jatorri atzerritarra zuen biztanleriaren %59,8ak enplegua zuen diru-sarrera nagusi gisa, 2014an %46,4 zen bitartean. Honetan, bi elementu argi izan behar ditugu. Bata, 2014an zein 2018an immigrarien diru iturri nagusia enplegua zela eta, hortaz, diru-laguntzen zurrumurruak okerrak direla, eta bestea, lau urteko tarte hau igoaldi tartea izan dela. Are gehiago, magrebtar eta senegaldar bezalako kolektibo zaurgarri eta estigmatizatuetan, lau urteko tarte honetan, enplegua diru iturri nagusi bezala dutenen tasa 12,6 eta 22,4 puntu igo da, hurrenez hurren. Era berean, immigrarien artean, euren egoera pertsonala "eroso edo zorionekoa" bezala definitzen dutenen kopurua %32,5ean igo da.

Zein da honen ondorioa? Edo, beste era batera esanda, zer da honekin argi utzi behar duguna? Alde batetik, kulturartekotasunaren bidean integrazio mailak ezberdindu behar ditugula eta, hortaz, integrazio materiala eta sinbolikoa bereiztu behar ditugula, eta bestetik, egungo ikuspegi katastrofistek ez digutela aniztasun kulturalaren kudeaketa errazten. Integrazio material eta sinbolikoa bereizterako momentuan, argi eduki behar dugu gure nahiak -kultura hegemonikoaren nahiak- ez dutela zertan immigrarien nahiekin bat egin behar.

> *"Askotan sentsazioa dut guk sortuarazi nahi dugula jendeak eskatzen ez duen plurikulturalitatea. Gerta liteke oso errez immigrariek gehiago kezkatuta egotea euren egoera ekonomikoaz euren egoera kulturalaz baino"*. (E 3).

Gauzak horrela, aniztasun kulturalaren pertzepzioari dagokion azpisekzio honekin amaitzeko asmoz, adituek, egungo aniztasun kulturalaren inguruan eta integrazio-prozesuen inguruan dagoen nahasketa edo korapilo soziala agertzen dute.

> *"Oraindik ere ez dago aniztasun kulturalaren kudeaketan dakartzan ondorioen ulerkera on bat, honen ulerkerak eta kudeaketa positiboak inplikatzen duena".* (E 5).
>
> *"Gaur egun aniztasun guztiak nahastu egiten dira, ez zaigu gustatzen hitz egitea immigrazioaz baizik eta dibertsitateaz eta orduan dena nahasten dugu. Ezin ditugu eremu berdinean sartu aniztasun sexualak, aniztasun pertsonalak, diskapazitate funtzionalak. Horretaz hitz egitea ezertaz ez hitz egitea da. Orduan, zertaz hitz egiten dut nik aniztasun kulturalari dagokionean? Ba, azken finean immigrazioarekin batera etorri izan den kultur ugalketaren inguruko errealitateaz. Horretan mugatzen naiz".* (E 3).
>
> *"Aztertuko bagenitu norbanako guztiak, esparru erabat anitzak topatuko genituzke. Nolabait esparru komunitario batean konexioa izango zutenak eta engranajeak balira bezala makinaria osoa funtzionatzen jarriko zutenak".* (E 6).

4.1.2.Identifikazio kulturalak: kultura mendebaldarra, kultura nazionalak eta azpikulturak problematizatzen.

Hasteko, *kultura* kontzeptuak inplikatzen duenaren inguruko zalantza sortu da. Egia da, kultura mendebaldarra eta kultura nazionalen inguruan ari garenean ez dugula *kultura* terminoaren kontzeptualizazio berdina egiten. Hau da, kultura mendebaldarra planteatzen dugunean ez gara kulturaz, eraikuntza historiko gisa, ari. Kultura mendebaldarra aldarrikatzen dugunean, egungo garai globalizatuan espazio mendebaldarreko kideok dugun izaera hiritarraz, kosmopolitaz, deskolektibizazioaz, indibidualismoaz, eta abarrez ari gara. Zentzu batean, sistema neoliberalak sortutako balio-sistema batez, biztanleria mendebaldar guztia kutsatzen duen balio-

sistema batez, izan ere. Joseba Agirreazkuenaga-k (2016), kulturen inguruan aritzean, egungo euskaldunon ikuskerak, sozializatzeko erak, kezkak eta, hitz batez, nortasunak, aurreko garaietako euskaldunek zituztenak baino, egungo europearrekin zerikusi handiagoa dutela onartzen du. Hori da bada kultura mendebaldarrak ikerketa honetan hartuko duen zentzua (49 or.).

Kultura hauek problematizatu ditugunean anbibalentzia bat suertatu da. Hau da, alde batetik zein den identifikazio kulturalen eta egungo plurikulturalitatearen arteko harreman *objektiboa* eta, bestetik, zein izan beharko litzatekeen aniztasun kulturala kudeatzeko esparrurik aproposena.

> *"Gaur egun, eremu makroak mikroa menperatzen duela ikusi dezakegu, bereziki kultura mendebaldar gisa ezagutzen dugun guztian; kulturen homogeneizazioa kontzientea gauzatzen ari da."* (E 2.2).
>
> *"Zein da gizarte bateko kultura dominantea? Klase dominantearen kultura logikamente, ezta? Horrek ez du esan nahi zuk halabeharrez horretan bizi behar duzunik"* (E 3).
>
> *"Gauza ugari gara, era berean kontraesan ugarirekin, baina demagun nolabaiteko tendentzia dominante batzuekin ere. (...) Eduki behar dugu kontraesanetarako eskubidea"* (E 3).

Argi antzeman dezakegu, orduan, kultura mendebaldarrak kultura nazionalen eta azpikulturen homogeneizazioaren bitartez gizarte guztia sistema produktibo berdin baten barnean barnebiltzeko nahia duela, jatorri atzerritarra duten migrariak barne. Maila makro batean kultura mendebaldarra kultura hegemonikoa izateak eta, horrenbestez, botere-harremanen hierarkizazioan piramidearen goiko aldean egoteak, ez du esan nahi maila mikroago batean beste botere-harremanak existitzen ez direnik. Kulturarteko gizarte bat sortzerako bidean, izan ere, esparru makroa alde batera utzi eta esparru estatal eta nazionalak -azken hauek mikro bezala

ulerturik- hartu dira botere-harreman problematikoak eragiten dituzten elementu gisa. Zentzu honetan, ez dugu ahaztu behar Zizek-ek (1998) aldarrikatu zuen bezala gizaki orok identifikazio kultural bat baino gehiago irudikatzen duela. Ondorioz, aniztasun kulturala eta honen kudeaketa aztertzerako orduan kultura *mikro*-ekin duten harremanak aztertu behar ditugu. Horiek dira, izan ere, immigrarien eguneroko bizi-baldintza faktikoak hobetzen lagunduko dutenak. Berriz, balio-sistema neoliberalaren inguruan jarduteak, gehiegizko planteamendu filosofikoetan erortzea ekarri dezake eta, beraz, eguneroko errealitatetik eta gizartearen hizkuntzatik urruntzeko arriskua du.

> *"Hegemonia politikoaren terminoetan, neoliberalismoari ondo datorkio aniztasuna. Txarragoa izango litzateke neoliberalismoarentzat kultura sozial antihegemoniko bat egotea. Uste dut arazoa ez datorrela hortik, kultura nazionalen esparrutik baizik, bereziki estatal eta azpiestataletatik".* (E 4).
>
> *"Txikienak handiena eraikitzen duela ahazten ari gara".* (E 2.2).
>
> *"Komunitatea eta gizartea erabat anitza dela uste dut, nahiz eta ohitura politiko antzekoak izaten ditugun, baina, izatez, gustuak, nahiak, estetika eta oso anitzak dira."* (E 6).
>
> *"Uste dut arazoa identitate nazionalen mailan dagoela".* (E 4).

4.1.3.XX.mendeko barne-migrazioetatik XXI.mendeko kanpo-migrazioetara: Euskal Herriko kasua

Plurikulturalitatea errealitate material gisa aldarrikatzen dugunean ez dugu ahaztu behar, alde batetik, aniztasun kulturala ez datorrela bakarrik kanpo-migrazioetatik eta, bestetik, kanpo-migrazioen heterogeneotasuna oso handia dela. Bigarren honi dagokionez, zaurgarritasun egoera dakartzan kanpo-migrazioen inguruan arituko gara eta, inoiz ez, eremu mendebaldarraren barneko migrazio-prozesuez, hauek, jada azaldu dugun bezala, kultura mendebaldar eta egoera

normatibo mendebaldar baten baitan baitaude, Schengen hitzarmena dela medio, esaterako. Lehenari dagokionez, adieraztekoa da Euskal Herriak, XX.mende erdialdera, industrializazio garaian, Espainiar Estatuaren barneko beste zonalde batzuetatik immigrazio handia jaso zuela. Gaur egun, migrari horiek eta baita hauen bigarren eta hirugarren belaunaldiak -era argiago batean- euskal gizartearen parte dira. Izan ere, euskaldun sentitzen dira eta, kasu askotan ere, euren aiton-amonen lehen mailako identifikazio kulturala ahaztu egin dute, euskal izaera asimilatu dute, zentzu batean. Horrek, bestelako argudiaketa problematikoez eta liskarrez aparte, XXI.mendeko euskal gizartea eratu du. Baina ez edonolako euskal gizartea, euskal gizarte plurikulturala baizik. Hau da, egun, kanpo-migrazioen beharrik gabe, Euskal Herria plurikulturala da, euskal kulturaz gain, Gaztelako, Galiziako eta Extremadurako kulturek ere egungo Euskal Herria sortu dute eta, euskal nortasuna eraldatu ere. Hortaz, zalantza ugari sortzen zaizkigu. Euskal Herria, berez -kanpo-migrazioen beharrik gabe- plurikulturala bada, zein da XX.mendeko migrazio-prozesuen eta egungo migrazio-prozesuen ezberdintasuna? Posible al dute egungo immigrariek, migrari estatalen integrazio -edota inklusio- maila lortzea?

> *"Migrazioa barnekoa denean ez da atzerritartasun legerik existitzen".* (E 1.2).
>
> *"Latinoamerikar eskualdean eta afrikar kontinentean osagai axial bat dugu, arrazializazioa dena. Ez da berdina Extremadurako pertsona edo subsahariar bat etortzea".* (E 2.1).
>
> *"Nolabait, "besteen" aurrean, urrutitik datozen "beste" horien aurrean, gehiago egiten dugu bat".* (E 5).
>
> *"Ointxe dauden migrazio-prozesuak ez zeuden duela 49 urte. Egun daukagun globalizazioak eragiten digu baita kudeaketa ezberdinak egiten eta ez gara moldatzen kudeaketa berri horietara, soilik kapitalismoak nahi dituen moldaketetara moldatzen gabiltza."* (E 6).

"50 eta 70 hamarkadetako migrazioak solidoak zirela kontuan harturik, nahiz eta Extremaduratik etorri, bazekiten urte asko edota bizitza osoa hemen emango zutela; oraingo migrazioak migrazio likidoak dira". (E 4).

Aditu guztiek esparru komun batzuk definitzen dituzte garai horretako eta egungo migrazioak ezberdintzerako momentuan. Hasteko, XX.mendeko migrazioek, esparru estatal berdin baten baitakoak izanda, nahiz eta migrazio ekonomikoak izan ziren, ez zuten egungoak duten zaurgarritasun maila. XXI.mendeko migrazioek zaurgarritasun bikoitz edo hirukoitza pairatu dezakete. Lehendabizi, helmugako kulturarekin duten urruntasuna oso bortitza izan daiteke, kultura honen baitan hizkuntza nazional eta estatalak kontuan hartuz, harremantzeko erak kontuan hartuz, eta abar. Bigarrenik, migrazio gehienak behin-behinekoak izaten dira, nahiz eta denbora tartea zehaztu ezin izan; hau da, gaur Euskal Herrian egon daitezke eta bihar Frantzian edota euren jatorrizko lurraldean bueltan. Hortaz, ez dute euren bizi-baldintzen inguruko inolako ziurtasunik.

"Hemen ez dago bizitzarik, enplegua bakarrik; bizitzeko bueltatu egin behar gara". (E 1.1).

"Heldu direnak ez dira etorri zeozer kentzeko, zeozer gehitzeko baizik". (E 1.1).

Hirugarren puntu gisa, osagai arraziala daukagu. Izan ere, egungo migrariek arrazializazio handia pairatu egiten dute eta, arrazializazioak, beste diskriminazio forma batzuekin gertatzen den bezala, migrariak estigmatizatzen ditu, migrazioak naturalizatuz eta migrariei gizatasuna ukatuz. Azken osagaia eta, garrantzitsuena, faktore ekonomikoa dugu. Kanpo-migrazio hauek, barne-migrazioekin konparatuta, ez dute inolako ziurtasun ekonomikorik.

"Ikuspegi ekonomikotik heldu ziren gizarte batera non bizi mailara berehala egokitu ziren eta gorantz joan ziren. Orduan, enplegua zegoen neurrian integrazioa automatikoa zen. Zuk enplegu on bat duzunean zure arazoen %90a desagertu egiten da". (E 3).

"Ez da gauza bera leku batera heltzea eta libreki lan egin ahal izatea, edo eskubide hori ez izatea". (E 1.2).

Honekin hurrengoa ondorioztatu dezakegu: integrazio ekonomikoa, hau da, enpleguaren bidezko integrazioa, osagairik garrantzitsuena da. Integrazio-prozesuaren beste elementu guztiak menperatzeko gaitasuna ere badu. Hortaz, nahiz eta adituek XX.mendeko barne-migrazioen zailtasunak eta liskarrak ere aipatu dituzten, barne-biztanleria migrari horren integrazio maila altua ere onartu dute. Hemendik aurrera, gure helburua hori bera izango da, egungo kanpo-migrariek integrazio maila jakin bat lor dezaketen aztertzea.

"Demografia eraldatu zuten eta euskal gizartea ere, ezta? Azkenean gure gizartearen parte izaten bukatu zuten". (E 4).

"Nik esango nuke, orobat, momentu honetan kanpotik datorren immigrazioaren kontrako jarrera askoz txikiagoa dela bere garaian egon zena baino, eta lehen beldur handiagoa egon zela gaur egun existitzen dena baino (...) Baina, enplegua zegoen neurrian integrazioa automatikoa zen". (E 3).

"Gaur egungo Euskadin bizitzeko esperientzia duen edonor nabaritu dezake, azkenean, integrazio sakona egon zela, nahiz eta migrazio horietan tentsio handiak egon ziren". (E 4).

4.1.4.Kanpo-migrazioak "mehatxu" gisa

Kanpo-migrazioen aurkako diskurtsoetan -noski, izaera arrazializatua duten migrariengan- arrotzaren, arriskuaren eta mehatxuaren irudiak gailentzen dira. Zentzu horretan, gizartean zabaltzen diren mezuetan ez dira orokorrean kulturarekin erlazioa duten mehatxuak agertzen, baizik eta enpleguari lotutakoak. Gure adituek ez dituzte mehatxu horiek ukatzen. Noski, migrazio masiboak ekarritako aniztasun kulturalak beti sortuko du tentsioren bat. Gauza

da, tentsioak nola hartzen ditugun eta zein eran kudeatzen ditugun; hau da, nola traduzitu ditzakegun problematika horiek kulturarteko gizarte baterako elementu aberasgarrietan. Horretarako, berebizikoa da tentsio hauek identifikatzea. Korronteetako bat bada, Darrell Bricker eta John Ibbitson-ek (2019) aldarrikatzen duten bezala, identitate kultural estuenek arazo gehiago dituztela beste kulturak integratzerako orduan.

> *"Zure identitatea nola eraikitzen duzunaren arabera doa mehatxua, segun eta zure ideologia, zure bizipenak eta zure baloreak zeintzuk diren"*. (E 5).
>
> *"(…) paradoxa baten aurrean aurkitzen gara. Tesi hau (Kanadako integrazio prozesuena) Espainiar Estatuari aplikatuko bagenio, integrazioa Euskadin Espainian baino zailagoa dela ondorioztatu beharko genuke eta, kontrakoa gertatzen zaigu, izan ere"*. (E 4).

Honako hau, Espainiar Estatuaren kasuan ez du errealitatearekin bat egiten. Izan ere, identitate solidoenek beste kulturak integratzeko arazo handiagoak dituztela onartuko bagenu, ondorioztatu beharko genuke Euskal Herriak zailtasun handiagoak izan beharko lituzkela jatorri atzerritarra duten migrariak integratzeko. Noski, hau ez da inolaz ere horrela gertatzen. Izan ere, Euskal Herriak Espainiar Estatuak baino kultura integratzaileagoa dauka atzerriko kulturekiko. Beste gauza bat izango litzateke XX.mendeko barne-migrazio horiek aztertuko bagenitu. Horretan, euskal kultura eta "kultura espainiarraren" arteko nolabaiteko tentsioa nabaritu dezakegu, nahiz eta, noski, langileek -migrariek- berauek tentsio hauen errudun ez izan. Baina mehatxuen auzira bueltatzen bagara, ikus dezakegu, esaterako ezker abertzaleak, nahiz eta euskal identitate sendoa izan, atzerriko kulturen integrazioaren aldeko diskurtsoa daukala, diskurtso interkultural eta internazionalista. Horrez gain, euskal eskumak ere, EAJk ere, Espainiar Estatuko eskumarekin konparatzen badugu, gizartetik gertuago dagoela ematen du, diskurtsiboki behintzat. Hortaz, ondorioztatu dezakegu, atzerritik datorren aniztasun kulturalak ez dituela kultura nazionalak

zalantzan jartzen, baizik eta hauek direla aniztasun kulturalaren alboan egongo direnak. Aldiz, benetan zalantzan jartzen dutena Estatu-nazioen kulturen ilusioa da. Kultura nazionalek historia dute euren burua aldarrikatzeko tresna, ezagutza zientifikoa dute zibilizazio gisa aldarrikatzeko. Estatu-nazioek aldiz, Pierre Bourdieu-k (1997) aldarrikatutako izaera "biolentzia sinbolikoa"-ren bitartez agertu besterik ez dute. Historiarik ez duten herriek besteen historia lapurtu eta biolentziaren bitartez mantendu besterik ez dute.

> *"Uste dut krisian dagoena, bereziki, gizabanako bihurtzen gaituzten eskubide guztiez gozatzeko eta hauek defendatu ahal izateko, Estatu-nazio baten baitan sortu beharraren ideia dela . Krisia hori da eta honek, krisian sartzen ditu, bereziki, estatua duten nazionalismoak".* (E 4).
>
> *"Komunitatez hitz egiten badugu eta ez kanpo-barne gizarteaz, arrotzaren diskurtso hori ezabatzen da erabat. Esaten dugu, bueno, hau da daukagun egoera eta aurre egin behar diogu komunitate bezala. Hauek ez dira kanpokoak, hemengoak dira oraintxe."* (E 6).
>
> *"Kanpo-migrazioek muga moral eta etikoak jartzen dituzte zalantzan, gehienbat"*. (E 4).

4.1.5.Aniztasun kulturalaren kudeaketa

Kulturartekotasunaren potentzialitateak aztertzerako bidean, egungo aniztasun kulturalaren kudeaketa nolakoa izaten ari den planteatu zaie adituei. Hauek, aho batez, orobat kudeaketa txarra garatzen ari garela adierazi dute, ez bakarrik administrazio publikotik, baizik eta gizartearen baitan ere. Zentzu honetan, nahiz eta aniztasun kulturalaren kudeaketa txarraren aurkako analisiak erabat anitzak diren, denek puntu batean bat egiten dute. Alde batetik, immigranteen integrazio esparruak pribatizatu egiten ari dira. Administrazioen aldetik integrazioaren aldeko jarrera pasiboa aurkitzen dugu, migrariak zenbaki hutsak balira hartzen dira, euren zaurgarritasun egoeraren espezifikotasunak alde batera utziz. Horren adibide argia RGIa izan daiteke. RGIa zaugarritasun egoeran dauden kolektibo ezberdinen bizi-baldintza

minimoak bermatzeko tresna ona izan daiteke, baina, noski, ez da kolektibo zaurgarri zehatzen espezifikotasunak asetzeko gai. Espezifikotasun horiek guztiak asetzeko gizarte zibileko fundazio eta elkarteak izango genituzke eta, inoiz ez, gaur egun, administrazio publikoa. Bestetik, migrarien integrazioa burokratizazio gehiegi jasaten ari da. Honen barnean, adituek bereziki atzerritartasun legea eta nazionalitatea eskuratzeko epeak azaleratzen dituzte. Horiek guztiek, ziurgabetasun handia sortzen dute jatorri atzerritarra duen populazioarengan.

> *"Eurek txartela ematen dizute, baina ez zaituzte sartzen uzten"*. (E 1.1).
>
> *"Nire ikuspuntutik gutxienez izaera erabat neoliberala daukan kudeaketa politikoak eragiten du espazioen monopolioa eta botere kulturalaren monopolioa instituzioaren baitan egotea eta, bide horretan, enpresa pribatuen baitan.* (E 6).
>
> *"Atzerritartasun legea aniztasun kulturalaren kudeaketa galarazten duen lehen oinarria da. Orduan, hori ez dago arrazismo instituzionalean oinarrituta soilik, baizik eta aporofobian ere".* (E 2.1).
>
> *"Behar dena, bereziki, "aukera leihoak" sortzea da. Hau da, jendea harremandu daitekeen edo harremandu beharko litzatekeen espazioak. Zenbat eta espazio sozial gehiago pribatizatu, orduan eta zailtasun gehiago izango ditugu harremantzeko, ezta?"* (E 4).
>
> *""Paperak" falta zaizkigu lan egin ahal izateko. Gehiengo batek beltzean lan egiten badu, horrek estatua eta gizartea kaltetuko ditu".* (E 1.1).

Administrazio publikoek garatzen dituzten politiken inguruan kritikak agertzeaz gain, gizartearen baitan zailtasunak ere agertzen dizkigute. Lehenik eta behin, eguneroko bizitzako espazioak aldarrikatzen dira integrazioa zailtzen duten espazio gisa. Hau da, biztanleria harremantzeko eta, horren bitartez integrazioaren hastapenak lortzeko espazio publikoen beharra onartu egiten da. Egun, espazio horien faltak aniztasun kulturalaren kudeaketa zaildu egiten du. Bigarrenik, integrazioa lortzeko esfortzu bikoitzaren beharra adierazten da; era horretan,

integrazioa migrarien kontua soilik ez dela azaleraziz. Hau da, helmugako gizarteak ere paper garrantzitsua jokatu egiten du jatorri atzerritarra duten migrarien integrazio-prozesuetan. Horrek, ondorioz, ikerketaren helburu espezifikoak sendotu baino ez ditu egiten. Hortaz, hemendik aurrera, gizarteak jokatzen duen paper hori zein den definitu beharko genuke.

> *"Gizarteak ez du onartzen esfortzua bi aldekoa dela. Gizarteak migrazioa onartu egiten du, baino integratu ez".* (E 1.2).
>
> *"Benetako gizarte anitza eta plurala sortzen den espazioa eguneroko bizitza da, bizikidetza espazioak, nekez kudeatu daitezkeenak".* (E 4).

Hirugarrenez, berriro ere, migrariek espazio edo jardun ekonomikoetan jokatzen duten paper eskasa agerian uzten da. Aditu hauen guztien ondorioa berdina izan daiteke, integrazio ekonomikorik gabe migrarien gutxieneko integrazioa lortzea ezinezkoa dela, izan ere. Noski, integrazio ekonomikoa ez da beharrezkoa dugun bakarra. Izan ere, horregatik aldarrikatzen da gizarteak integrazio prozesuetan hartu beharko lukeen papera, baina integrazio ekonomikoak beste integrazio maila guztiak menperatu egiten ditu. Beraz, migrariek ez dute autoktonoen espazio berdinetan jardungo, alde batetik, (1) sozializazio espazio publikorik existitzen ez bada eta, bestetik -garrantzitsuena dena-, (2) integrazio ekonomikoa baldin ez badute.

> *"Ikusten dudana, gero baita, kudeaketa kapitalistaren ondorioz, herri askok galdu egin dutela espazio propio bat, kalean ere, ezta? Nolabait plaza bat eta batzeko eremu bat ez dago gurean".* (E 6).
>
> *"Ez dakit zer espazio utzi diezaiokegun aniztasun kulturalari baldin eta adierazgarritasuna askatasunez garatzen uzten ez badiogu, elkarte ekonomikoetatik baztertzen ditugulako baita".* (E 2.1).

4.1.6.Kulturartekotasunaren potentzialitate eta oztopoak

Aniztasun kulturalaren pertzepzioak testuinguratzen bukatzeko asmoz, kulturartekotasuna posible den planteatu zaie adituei. Hauek, lehendabizi, epeen inguruan aritu dira. Zentzu honetan, kulturartekotasuna definitzeko zailtasunak agertu dira. Hau da, nolakoa izan beharko litzateke kulturarteko espazio bat? Gehiegizko idealizazioa al dakar planteamendu horrek? Horregatik, epeari dagokionez, epe luzeko tartea definitu dute gizarte eraldaketa honetarako. Izan ere, hasteko, kulturarteko gizarte batean pentsatu aurretik, aktore guztiak bide berdinean arraun egitea bermatu beharko litzateke. Garapen honi dagokionez ere, epe luzearen ideiaren baitan, pentsamolde idealizatuetatik -eta baita katastrofistetatik, esango genuke- aldendu beharko ginateke, immigrarien bizi-baldintza faktikoen hobekuntzan zentratuz.

> *"Gizarte aldaketak, behagarriak izan daitezen, epe luzerako izan behar dira, belaunaldiak behar dira. (...) Epe laburrean ez dut kulturartekotasunik posible ikusten. "Betaurrekoak" aldatzeak, pausoz pauso burutzen diren solasaldi, eztabaida eta borroka anitz eskatzen ditu".* (E 2.2).
>
> *"Kulturartekotasuna pausu bat da, baina pausu asko daude aurretik".* (E 2.1).
>
> *""Lo mejor es enemigo de lo bueno". Uste dut, batzuetan eredu idealak lortu nahi ditugunean, ezinezkoak direla. Orduan, itxaropen horiek leuntzen baditugu soilik da posible kulturartekotasuna. Kulturartekotasuna konkretuan da posible, harreman espezifikoak eratzean eta, hor eraiki eta lan egin behar dugu".* (E 5).

Gauzak horrela, kulturartekotasuna posible dela zehaztu genezake. Bide honetan, adituek, lehen momentu batean, gizarteari eta eguneroko bizitzari erreparatzen diote migrarien integrazio-prozesuak aurrera eramateko bidean. Honetan, bereziki gizarte zibileko elkarteek, egungo balio-sistemaren eraldaketa progresibo batengatik apustu egiten dute. Ez dituzte sistema neoliberala

edo mendebalde bezalako kontzeptu makroak erabiltzen, baina gizartearen izaera indibidualista salatu eta, kolektibotasunean eta elkartasunean oinarritutako harremanen beharra aldarrikatzen dute.

> *"Bizitza egon dadin, partekatzea ezinbestekoa da. Afrikara joan nahi baduzu, txartela erostea besterik ez duzu. Bertan jateko eta lo egiteko lekua izango duzu; geuk ezin dugu hori hemen eduki".* (E 1.1)

Honetarako, *kausa-efektu* nabaria agertu zaigu. Migrari zein autoktonoak, kulturartekotasunean oinarritutako integrazio-prozesu bat aurrera eramaterako bidean, elkartu egin behar dira; hau da, solasaldian egoteko, begiradak gurutzatzeko eta eztabaidatzeko ere, gai izan behar dira. Horretarako, (1) herrien baitako espazio publikoen beharra ezinbestekoa litzateke. Honen inguruan hurrengo sekzioan zehaztasun gehiagorekin arituko gara.

> *"Kulturartekotasuna, elkartze espazioak sortuz da posible. Behin ezagutzen direla, azkar batean elkartuko dira".* (E 1.2).

Bide horretan, (2) *guetto* kontzeptuaren ezabapena proposatu da. *Guetto* eta *guettizazio* kontzeptuak ulerkera arrotz batetik hartu ohi dira kultura hegemonikoaren partetik eta, ez bakarrik arrazoibide xenofobo batetik, baizik eta kulturartekotasuna bandera gisa duten kolektiboen partetik ere. Migrarien guettizazioak administrazio publikoen estrategia bati erantzuten dio maiz. Egia da, migrarien auzoak osatzea, bigarren belaunaldiko migrariez betetako eskola publikoak egotea, eta abar, migrarien eta autoktonoen arteko elkartze espazioak edota elkartze momentuak zailtzen dituela, baina bestetik, nola izango litzateke posible migrariek euren kulturak praktikatzea, kokapen territorialean fragmentazio handia izango balute? Ez litzateke hori asimilazioaren oinarrietako bat izango? Hortaz, migrarien kontzentrazioak ekiditu baino lehen, beste hainbat pausu burutu beharko genituzke.

> *"Guk nahi badugu aniztasunaren bidetik eraman, kontzentrazioen aurrean ez dugu beldurrik izan behar, lehenengo eta behin. Bigarren elementu modura, bermatu egin behar dugu jende horri eguneroko bizitza ondo joan behar zaiola."* (E 3).

Honek guztiak, azken pausu gisa (3) migrarien mugikortasun soziala bermatzeko tresnak izango lituzke. Zentzu horretan, estratifikazio sozialean posizio oso desberdinean dauden bi kolektibo maila berdinean kokatzen ditugunean, gerta liteke kolektibo indartsuenak kolektibo zaurgarriena jatea, kolektibo zaurgarriena bereganatzea. Hori bera da biztanleria autoktono eta migrariekin gertatuko litzatekeena. Hau da, hasteko, kaltegarria izango litzateke, migrarien aukera berdintasuna bermatu baino lehen, mugikortasun soziala izateko aukera bermatu baino lehen, kontzentrazioen aurka jotzea; horrek, kulturartekotasuna baizik, eredu asimilazionistan eroriko litzateke eta. Hortaz, jatorri atzerritarra duen biztanleria estratifikazio sozialean duen papera aldarrikatu behar dugu. Nola? Euren bizi-baldintzak asetuko lituzkeen posizio ekonomiko bat bermatuz, euren eguneroko parte-hartzea bideratuko lukeen aukera sozioekonomikoak bermatuz. Era horretan bakarrik lortu dezakegu espazio publikoetako harremanak horizontalak izatea. Elkartzeko espazio publikoak sortuko bagenitu, baina migrariek aukera ekonomikorik edukiko ez balituzte, ezinezkoa izango litzaieke espazio horietan parte-hartzea. Beraz, oraintxe sorturiko hiru mailako *kausa-efektu* honen baitan batek ere ezingo luke huts egin. Hau da, baten huts egiteak beste guztiak baldintzatuko lituzke, asimilazionismoan eroriz.

> *"Ezin daiteke existitu interkulturalitaterik ez badago posizio ekonomiko berdintsurik. Edo bermatzen dugu jatorrizko berdintasun estrukturala edo bestela aniztasun kulturala txiste bat da"*. (E 3).

4.2.Eraldatze aktore eta espazioak aztertzen

Sekzio honetan, kulturarteko gizarte baten hastapenei helduko diegu. Hala ere, aurrerapausu hauek adierazgarritasuna eduki ditzaten, aurreko sekzioaren ondorio gisa jardungo duten bi elementu nagusi aldarrikatuko ditugu. Alde batetik, (1) aniztasun kulturala egunerokotasunean gauzatzen dela eta, hortaz, egunerokotasunean kudeatu behar da.

> *"Uste dut, batzuetan artifizio handia dagoela aniztasunaren kudeaketan, bereziki, aniztasun kulturala ezohizko espazio edo ekintzen bitartez kudeatzen dugula pentsatzen dugunean. (...) Nolabait egunerokotasunean integratu behar da."* (E 4).
>
> *"Uste dut hau zerbait berezkoa izan behar dela, herriak propioa izan behar duena. Nor hasi ez dio axola, baina prozesuak paraleloak izan behar dira, elkar influentzia izan behar dute."* (E 6)

Honek zera esan nahi du, hasteko ezin dugula pentsatu benetan aniztasun kulturala kudeatzen ari garenik. Hau da, gure papera pentsatzen duguna baino txikiagoa dela onartu behar dugula eta, beraz, plurikulturalitateari espazioa utzi behar diogula autonomoki -eta aldi berean, aukera berdintasuna bermatuz- garatzeko. Bigarrenik, kulturen arteko loturak burutzeko oinarria egunerokotasuna bera dela eta, ez egunerokotasunetik kanpoko mugarriak. Noski, mugarri horiek prozesu interkulturalaren aurrerapausuak adieraziko lituzketen momentu gisa funtzionatu dezakete, baina ez da horien bitartez kulturartekotasuna lortzen. Hau da, esterako, ez da kulturartekotasuna lortzen munduko gastronomia ekitaldiak garatzen. Beste aldetik, (2) ikerketan zehar askotan aipatu duguna berriro ere ageri zaigu eta ezinezkoa zaigu pasatzen uztea. Mantra bat balitz bezala hartu behar dugu. Jatorri atzerritarra duen populazioaren parte-hartzea ezinezkoa da zaurgarritasun egoeran diharduten bitartean eta, ondorioz, integrazioa ere ezinezkoa da gutxieneko bizi-baldintzak aseturik ez dituzten arte.

"Lehendabizikoa zaurgarritasuna da, militatzeko denbora izan dezakezu, kolaboratzekoa ere, parte-hartzekoa, betiere zure bizitza pertsonal eta materiala aseturik baldin badago." (E 5).

"Beharretik irtetzeko era lortu behar dugu askatasuna lortzeko, beharretik aske izateko." (E 4).

4.2.1.Gizarte zibilaren papera

Gizarte zibilaren papera aztertu dugunean, nahiz eta, egia den, politikoki antolatuago dagoen gizartearen zatiaz ari garela, gizartea bere osotasunean ere aztertu dugu. Hasteko, gizarte zibila aktore problematikotzat hartu da. Instituzio publikoen papera gizartearen, kolektiboaren, masaren, gaineko ekintzak antolatzearen ingurukoak izan diren bitartean, gizarte zibilak gizabanakoen mailan aritzen da gehienbat. Alderaketa bat egitearren, administrazio publikoen lana soziologikoagoa izango litzateke eta, gizarte zibilarena psikologia eta antropologiara hurbilduko litzateke gehienbat. Zentzu horretan, gizarte zibilaren parte diren gizarte-mugimenduek, fundazioek eta elkarteek, immigranteen emozioekin aritzen dira, immigranteen eguneroko bizitzarekin, hau da, immigrantearen errealitate materialarekin eta horrek eragiten duen errealitate emozionalarekin.

"Gizarte zibilak lanik gogorrena du, gizabankoz gizabanako mentalitateak aldatze dena." (E 2.2).

"Komunitateak, administrazioa inoiz helduko ez den lekuetara heltzeko gaitasuna du; hemen, kolaborazioa eta elkarlanaren inguruan ari naiz." (E 5).

Errealitate emozional horrek, ondorioz, gizarte zibilaren enpatia maila altua eskatzen du eta, baita errealitate emozional hori eragiten duen bizi-baldintza materialak aldatzeko ezintasunak onartzea ere. Nolabaiteko frustrazio bat, beraz.

Horregatik guztiagatik, gizarte zibila, administrazio publikoekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa da. Instituzio publikoak, ikerketa honetan aztertu ditugun hiru aktoreen erdigunean daudela onartu behar dugu lehenik eta behin eta, era berean, gizartearen eta merkatuaren erdigunean ere. Oso paper arriskutsua, beraz. Honakoa kontuan izanda, ezinbestekoa da gizartearen eta instituzio publikoen arteko interakzioak garatzea, hauek aktoreek elkarren beharra baitute. Zergatik? Alde batetik, gizarte zibilak, gaur egun, ez duelako botere-harremanean indar gehiegirik eta, bestetik, administrazio publikoek, nahiz eta botere politiko eta legitimitate handia izan, ezinezkoa dutelako immigranteen errealitate emozionaletara hurbiltzea. Beraz, lehen esan bezala, administrazioek immigranteak zenbaki huts gisa har ditzaketelako, "beste" kolektibo zaurgarri gisa har dezaketelako eta, ondorioz, diskriminazio guztiak nahastu eta eraginkortasun ahula izan dezaketelako. Zentzu honetan, nahiz eta administrazio publikoen inguruan aritzen garenean era argiago batean definitu dugun, honen eginkizunik nagusienetakoa elkartze espazioak sortzea izango litzateke, eurek duten botere sozioekonomiko eta politikoaz baliaturik. Hortaz, gizarte zibilaren papera instituzio publikoen eginkizunaren ondorioa izango litzateke. Izan ere, administrazioek gizartearentzat sortutako espazio horiek probetxuz hartu, moldatuz eta, azken finean, beraien nahien arabera antolatuz eta erabiliz.

> *"Gizarteak antolatu beharko luke bere burua baita plangintzak egiteko eta berak sortzeko espazio kultural horietan, instituzioak bermatzen dituen espazio kultural horietan, haien nahiak botatzeko, ezta?"*. (E 6).

Honek ere problematika bat izan dezake administrazioen aldetik. Aktore hauen bien arteko elkarrekintzan horizontaltasuna ez mantentzea, izan ere. Hau da, bai, administrazioek elkartze espazioak antolatu behar ditu, baina antolatze horrek ez du esan nahi administrazioek espazio horietan garatzen diren egintzen inguruko hegemonia izan behar dutenik. Administrazioek, behin

espazio horiek existitzen direla bermatuta, gizarte zibilari utzi beharko lioke garapenaren hegemonia, aktore hau baita migrarietatik hurbilen dagoena eta, beraz, eraginkortasunetik gertuen egon daitekeena. Era honetan, Wassily Leontief-ren (1984) eredu ekonomikoa gizarte-prozesuetara eramanda, *input-output* logika batean sartuko ginateke. Hau da, gizarte zibilak -akademiarekin batera, noski- prozesu integratzaileak garatzeko norabidea zehaztu beharko luke -*input*- eta, administrazio publikoak, politika publikoen bitartez, gizarte zibilaren beharrizan eta eskakizunak asetu -*output*-.

Gauzak horrela, behin gizarte zibilak egintza espazio horiek bere nahietara moldatzeko gaitasuna duela, hartzen dituen jarrerekin kontuz ibili beharko luke. Hau da, gizarte eraldaketa eskatzen duen prozesu orotan, hau da, Sztompka-ren (1993) esanetan, subjektibitate aldaketa, sistema aldaketa edota bizi-baldintzen aldaketa, eskatzen duen prozesu orotan, tentsioak sortuko dira. Hortaz, aniztasun kulturala kudeatzea, bereziki kulturen artean sortuko diren talka eta tentsio horiek kudeatzea esan nahi du. Aldi berean, tentsioak kudeatzea prozesuak izan dituen akatsen eta potentzialitateen inguruan jarduteko aukera sortzen du, baina tentsio horiek akats gisa hartu gabe. Hau da, talka horiek gizarte eraldaketarako ezinbestekoak direla onartuz eta, inoiz ez, prozesuaren geldiune edo porrota.

> *"Gizarte zibilak, bereziki zenbat eta immigrazioari eta aniztasunari lotura estuagoa eduki, tentsio oro porrot gisa ikusteko arazoa du, edozein arazo krisi bezala ikusten du. (...) Adar bat apurtzen denean haizea egin duelako izango da, utzi adarra bakean, apurtu egin da, ez da ezer ez gertatzen. Goazen zaintzera, adar horrek zuhaitza erail ez dezan, baina ez goaz berehala esku-hartzera."* (E 4).

Honekin guztiarekin batera, gizarte zibilak oztopoak ere baditu. Aditu batzuek, oztoporik larrienak sistema kapitalistan bertan jarri dituzte. Hau da, sistema kapitalistak eragindako balio-

sistema neoliberalak -konpetentziak eta indibidualismoak, bereziki- dakarren nortasunean. Zentzu honetan, merkatu izaerak, edota aurretik aipatutako *homo economicus*-ak, gizarte zibila beraren jardutea eta hizkuntza moldatu dituela adierazten dute. Hortaz, azpisekzio honen barneko potentzialtasunak bete daitezen, balio-sistema neoliberala den birus horrek, gizarte-mugimenduak suntsitu ez ditzan zaindu behar dugu.

> *"Guk geuk ari gara dena errentagarritasunetik begiratzen, hizkuntza inbertitzaile eta merkatu-hizkuntza batekin. (...) Gizarte zibilaren papera, lehendabizi, pizti horrengandik menperatzen ez uztea izango litzateke, galzorian egotea, baina ez desagertzea."* (E 2.1).

4.2.2.Administrazio publikoen papera

Hasteko, ez bakarrik aniztasun kulturalaren kudeaketaren inguruan, administrazio publikoek euren helburuak zeintzuk diren finkatu behar dituzte. Helburu horiek, administrazioen kasuan, gizartearen eta merkatuaren nahien artean dihardungo dute. Bide honetan, bi aukera dituzte: (1) gizartearen ordezkari izan, sistema demokratikoa bermatuz, edo bigarrena (2) elite ekonomikoen nahiak asetu. Kulturartekotasuna lortzerako bidean, instituzio publikoek, lehendabizi, gizartearen ordezkari izatea aukeratu beharko lukete, kasu honetan, merkatua erregulatzeko baliabideak -tresna legal gisa ulerturik- jarriz. Zentzu honetan, Espainiar Estatuaren barnean, autonomi erkidegoek zein estatuak berak gauzatzen ari diren pribatizazioetatik urrundu beharko ginateke, interes publikoak aldarrikatuz. Adibide argia, EAEren barnean, I+D-an egiten den gastuan daukagu. Eustat-en arabera (2018), gastu honen %75,86a enpresa pribatu eta institutu teknologikoek egiten duten bitartean -alderdi pribatuek, izan ere-, administrazio publikoek gastu horren %6,77a egiten dute.

"Lehendabizi egin beharko litzatekeena publikoa dena birplanteatzea da, administrazio publikoa pribatizazio sistematikoaren testuinguruan agertzen delako. (...) Administrazio publikoak estratu sozialen beharrizanen analisi bat egin beharko luke." (E 2.1).

Behin herriarekin interakzioan egonda, administrazio publikoen papera kulturen elkarrekintzarako espazioak sortzea izango litzateke. Espazio publikoaren inguruan aritzen garenean, begi bistakoa da egungo herriek komunitate izaera galtzen ari direla. Espazio publiko gorena, hau da, kalea, igarotzeko espazio bat besterik ez da. Hau da, ez da kalean interakzio handirik nabaritzen. Honek, kultura hegemonikoa mantentzeko ez du inongo arazorik. Izan ere, kultura hegemonikoak ez du eguneroko interakzioen bitartez mantentzeko esfortzua egin behar. Kulturarteko gizartea eratzeko, aldiz, ezinbestekoa da kulturen arteko elkarrekintzak bermatzea. Adibide errez bat herrietako komertzio txikien krisia izango litzateke. Gaur egun, errazagoa, azkarragoa eta errentagarriagoa bada multinazionaletan erostea -online edo fisikoki izan-, nola sortu dezakegu elkartasunean oinarritutako giza-sare bat? Hori bera da administrazio publikoen papera eta, noski, ahalik eta eremurik txikienetan garatu beharreko politikak izan beharko lirateke, era horretan, eremu geografiko jakin bakoitzeko espezifikotasunak kontuan hartzeko asmoz. Eremu horiek, segun eta nolako tamaina, biztanleri kopurua eta dentsitatea duten, udalerrien edo kasu batzuetan ere, auzoen bitartez kudeatu beharko litzateke.

"Herritik, udalerritik. Goitik hartzen baldin badugu oso zaila izango da behera eramatea." (E 1.1).

Hasierako elementu hau laburbiltzearren, Marc Auge-ren (2000) "ez-leku" kontzeptua erabili dezakegu. Gaur egun, kalea bera ez-leku bat bilakatu da, nonbaitera heltzeko bide bat baino ez. Hori da, izan ere, administrazio publikoa, udalerrien bitartez, bermatu behar duena, jendartea

elkartzeko espazioak egotea. Aisialdirako espazioak, plazak, hezkuntza-zentroen ezohiko irekierak, komertzio txikien sustapena, etab. Horiek dira, izan ere, kulturak elkarrekintzan jarriko dituen espazioak.

> *"Praktikak sortu behar dira, non frutari eta harakina harremanetan jartzen ditugun; interkonexio espazioak sortu."* (E 5).
>
> *"Zenbat eta halabeharrezkoak diren espazio publiko gehiago egon, ospitaleak, garraiobideak, plazak, aisialdi guneak, orduan eta ezinbesteko nahaste handiagoa izango dugu. Zenbat eta espazio sozial gehiago pribatizatu, orduan eta zailtasun gehiago izango ditugu elkartzeko, ezta?"* (E 4).
>
> *"Instituzioaren papera izango da espazioak sortzea kultur aniztasuna bermatu ahal izateko eta herriak dauzkan errealitate kultural guztiei denbora tarte bat eman bere egitarauaren plangintzan."* (E 6).

Galdera nagusietako bat espazio hauek nola sortu izango litzateke. Ikerketa honetan, administrazio publikoen barneko espazio publikorik egokienak definituko ditugu. Hasteko, (1) hirigintza dugu espazio publikoaren antolamendurako gunerik garrantzitsuenetarikoa.

> *"APOa bezalako plangintzak, herriarekin elkartzea eta bertan espazio naturalak sortzea elkarbizitza ahalbidetuko dutenak, ezinbestekoa daukagu."* (E 6).
>
> *"Hirigintza ezinbestekoa da eta, baso-zaintzailearen hirigintza mota bat egongo litzateke, non espazioen, ekintzen, alokairuen, etxebizitzen eta, hortaz, auzokideen nahasketa ahalbidetuko genukeen."* (E 4).

Hirigintza arlotik, APO eta plan partzialen bitartez herrietako eskema aldatzea ezinbestekoa da kulturartekotasuna helburu duen gizarte eraldaketarako. Gogoratu, gizarte eraldaketek gizabanakoen subjektibitate aldaketa ere eskatzen dutela eta, horretarako, ezinbestekoa da

elkartze guneak existitzea. Zentzu honetan, administrazio publikoetan diharduten adituek bereziki, problematika larriak adierazten dizkigute. Alde batetik, udaletxeen baitan komunikazio falta aipatzen da. Hau da, udaletxetan ez dago hitz egiteko eta parte-hartzeko espaziorik, udaletxe barneko harreman formalak burokrazia eta instituzionalizazio maila sakon batean murgildu dira, bereziki, hegemonia politikoa duten alderdien baitan. Bestetik, nahiz eta egoera hipotetiko batean komunikazio minimo bat egon, udaletxe barneko esparruen banaketak era sistematikoan zailtzen du aniztasun kulturalaren kudeaketa. Hau da, udaletxeko immigrazio teknikariak -baldin eta udaletxe horrek mota honetako teknikaria badu-, era isolatu batean lan egiten du. Hau da, administrazioaren barneko beste eremuen arteko komunikazioa falta da. Ez da ulertzen, adibidez, immigrazioa eta hirigintza halabeharrez bat datozela, edota immigrazioa eta kultura bat datozela, immigrazioa eta hezkuntza, immigrazioa eta gaztedia, eta abar bat datozela. Laburbilduz, administrazio publikoen barneko sektoreen gehiegizko estratifikazioak gizarte-mailara ez hurbiltzea eragiten du. Hortaz, administrazio publikoen baitan garatu beharko litzatekeen lehen pausua harreman-sare bat sortzea izan beharko litzateke.

> *"Errealitatea da, kudeaketa partekatua oso zaila dela administrazioaren estruktura bertikala dela eta; eta, baita ere, administrazioa bera osatzen duten politikarien logika propioengatik ere."* (E 5).
>
> *"Zeintzuk eremuekin ditut zailtasunik handienak? Hirigintzarekin, asko kostatzen zaie ulertzea planteamendu urbanoa hiri ereduaren parte dela eta, nolabaiteko kulturartekotasuna sortzen duela plaza bat edo zabu batzuk definitzea."* (E 5).

Honetatik, bi ondorio nagusi atera ditzakegu. (1) Lehena, lehen esan bezala, administrazioa nolabaiteko desinsituzionalizazioa jasan behar duela, errealitate materialari gehiago hurbilduz, gizarteari gehiago hurbilduz eta, era horretan justiziari eta aukera berdintasunari gehiago

hurbilduz. (2) Bigarrenik, alderdi politiko edota administrazioa osatzen duten gizabanakoen pentsaera edo egintza propioek ezin dutela kudeaketa eredua -egon beharko litzatekeena- zalantzan jarri. Hau da, jarraitu beharreko parametroak, zientifikoek -akademiaren baitakoak eta baita administrazio publikoetakoak- eta gizarte zibilak, era deszentralizatuan finkatu beharko lituzketela.

Bigarren ekintza esparrua (2) hezkuntza izango litzateke. Akademikoek eta gizarte zibilak -helmugako gizartearen kide direnak eta baita migrariek ere- hezkuntza dute elkartze gune sendo gisa. Denek aldarrikatzen dute honen garrantzia. Guk, eurek azaldutako errealitate horiek gizartearen maila guztietara eraman nahi dugu. Hau da, ezinbestekoa da immigrarien lehen belaunaldiak hezkuntza-prozesu malgu bat jaso dezala eta, era berean, bigarren eta hirugarren belaunaldiek eta baita biztanleria autoktonoak ere, aniztasun kulturalaren eta migrazio-prozesuen inguruko ezagutzak jaso ditzatela, bereziki haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.

> *"Administrazio publikoek umeek immigrariez gehiago ezagutzea bermatu behar dute (...) Jendeak beldurra duenean ezin zaitu ezagutu. Administrazioak beldur hori kentzeko gai izan behar da."* (E 1.1).
>
> *"Alde batetik hezkuntza-sistema on bat sortu, zabalik egon behar duena eskaera berrien aurrean, bermatu behar duena neurri batean irakaskuntza on bat dagoela, bermatu behar duena ere flexibilizatu egin behar dituela hainbat ibilbide edo hainbat hezkuntza itinerario,"* (E 3).

Hirugarrenik (3), aurreko ataletan, immigrarien parte-hartzerako euren bizi-baldintzak aseturik izatearen beharra aldarrikatu dugu. Administrazio publikoek bizi-baldintza horiek bermatzeko ahalmena dute eta, ahalmena duen heinean, betebeharra baita. Zentzu honetan, gutxieneko bizi-baldintzak asetzeko bide bat Errenta Unibertsala izango litzateke. Espainiar

Estatuaren baitan, autonomi erkidego bakoitzak badu kolektibo zaurgarrien gutxieneko bizi-baldintzak bermatzeko errenta bat, baina hala ere, alde batetik, errenta horien heterogeneotasunak – adibidez, EAE edo Nafarroaren zenbatekoak Andaluzia edo Extremadurarekin konparatzen baldin baditugu- barne ezberdintasun handiak eragiten ditu eta, beste aldetik, errenta horiek gizartearen estratu guztietara heltzeko eta eraginkorrak izateko duten ahalmen txikiak, erantzun sendoago baten beharra ondorioztatzen du. Laburbilduz, Errenta Unibertsal batek, immigrarien bizi-baldintzak bermatzeko aurrerapausu handia izango litzateke eta, aldi berean, immigrari hauen parte-hartze autonomorako ere.

> *"Errenta bat bideratzea politika publikoen bitartez. Posiblea daukagu eta zergak ordaintzearekin eginda daukagu. Baina kobratu behar dizkiogu zergak baita boteretsuenei."* (E 6).
>
> *"Nolabaiteko egonkortasun bat behar da eta errenta basikoa horretarako balio du. Baina bakarrik horretarako balio du, bizi-gabeziaren mamua jendearen bizitzatik aldentzeko -asko dela jada-, baina gauza gehiago falta dira."* (E 4).

Azkenik, administrazio publikoen papera hitz batez definitzeko, aditu baten iritzia dugu. Honen aburuz, administrazioak espazio publikoak sortu beharko lituzke eta, behin espazio horiek sortu direla, jarrera pasiboago bat izan beharko luke; zaindariaren jarrera, izan ere.

> *"Botere publikoetatik kulturartekotasuna sortu eta elkartu daitekeen espazioak kudeatu behar dira. Baina behin espazio horiek existitzen direla, behin basoa hor dagoela, basotik paseatzera mugatu zaitez, suterik ez dagoela behatzera eta, ez eragin suterik. Arrosak arrosekin eta krabelinak krabelinekin diseinaturik dauden lorategi horien ordez, baso bat eraiki."* (E 4).

4.2.3.Akademiaren papera

Gaur egun, akademiaren papera, aurreko bi aktoreena baino askoz ere lausoagoa da. Hasteko, akademiaz jarduten dugunean, unibertsitateaz eta ikerketa publikoaz aritu behar gara. Zentzu horretan, egun, akademian egiten den ikerketa guztia ez da publikoa, ez da ikerketa basikoa. Bide horretan, alde batetik, (1) interes pribatuak ere asetzen ditu eta, bestetik, (2) jabetza intelektuala dela medio, komunitatetik deslotura handia sortzen du. Hortaz, administrazio publikoen tankera, akademiaren lehen pausoa, ikerketa noren mesedetan egiten den finkatzea izan beharko litzateke. Jada, lehen aipatu bezala, akademia ez da ikerketarako esparru nagusia, enpresek rol hori bereganatu baitute. Zentzu horretan, enpresek berauek garatzen dituzten ikerketek edo finantziatzen dituztenak ere, interes pribatuei erantzuten diete. Beraz, akademiak, indar gehiago galdu nahi ez badu, enpresetatik aldendu eta interes publikoaren alboan egon beharko litzateke. Bide horretan, Robert K. Merton-en (1942) ezagutza zientifikoaren ekoizpenaren parametroak bete beharko lirateke, jakintza zientifikoaren komunitarismoa bermatuz.

> *"Akademia noren mesedetan egiten dugu, enpresen mesedetan, instituzio neoliberalen mesedetan edo gizartearen mesedetan? Hori izan beharko litzateke lehenengoz definitzekoa."* (E 6).

Bigarrenez, akademiaren barneko hierarkizazioa, hein batean baldin bada ere, mantsotu egin beharko litzateke. Hau da, ikerketa zientifikoa, herriaren mesedetan egin beharko litzatekeen heinean, ezin du balio izan ikertzaile jakin batzuen buruak aldarrikatzeko eta birsortzeko soilik. Bide horretan, izaera indibidualista eta konpetitiboa akademiatik urrundu behar dugu, aldizkari eta konferentzia ezagunenetan egoteko grin basatia desagertu beharko litzateke. Hitz batez, ikertzaileen ego-a handitzea besterik bilatzen ez duen ezagutzaren ekoizpena eraldatu behar dugu.

"Akademiaren erronka nagusia ego-a gainditzea da. (...) Ezagutza gehiago eta gehiago ekoizten diren burbuila hori gainditu eta oinak lurrean jarri. (E 2.1).

"Akademiaren barne-klasismoa deseraiki behar da". (E 2.2).

Hirugarren elementu gisa, behin unibertsitatea laborategi publiko gisa aldarrikatuta, ezagutza publikoa sortzea izan beharko litzateke, hori baita akademiaren betebehar nagusia. Bide horretan, errealitatea aztertu, herri maila ukitu, instituzio maila aztertu, hau da, aurreko mailak ulertu, hausnartu eta, egunerokotasunean bideragarriak diren praktikak eta ondorioak bota behar ditu akademiak. Hori bera da akademiaren papera, garai batean sortu zeneko helburua bermatzea izan behar da aktore honen papera. Merkatu logikatik aldendu eta jaiotzez dituen betebeharrak burutu.

"Ezagutza sistematikoa sortu eta, nolabait, hausnarketarako laborategia izatea; baina aldi berean, gutxienez aniztasun kulturalaren esparruan, lurreratzea eta ulergarria izatea eskatzen diot." (E 5).

"Akademia edo unibertsitate gisa egin dezakegun bakarra errealitate konplexuak argitzea da eta, hortaz, nolabaiteko arrazionalitatea duen diskurtso bat garatzea." (E 4).

Laburbilduz, unibertsitateak, behin plurikulturalitatea den errealitate materiala aztertu duela, lurreratu egin behar du. Gizarte maila behatu behar du, praxiaren maila ukitu behar du eta, bide horretan, politika publikoak sustatu. Hau da, ez soilik maila teoriko edo akademiko batean geratu -beharrezkoa dena, noski-, baizik eta gizartea eraldatu ditzakeen politika zehatzak argiztatu. Administrazio publikoa eta gizarte zibila argiztatu, izan ere.

"Unibertsitateak egin beharko lukeena da ikerketa, eta ikerketa bat batez ere planteatuta ez arlo akademikora, baizik eta politika sozial eta politika publikoetara; hori egin behar du

unibertsitateak. Unibertsitateak deskubritu egin behar ditu zer arazo dauden eta arazo horiek zer konponbide posible duten." (E 3).

4.2.4.Prospektiba

Azken maila honetan, adituei aniztasun kulturalaren kudeaketarako fikziozko agintea eman zaie, bide horretan, kulturartekotasuna lortzeko bideak, espazioak, politikak eta abar, zein izan beharko liratekeen aztertzekoa ere. Hau da, "aniztasun kulturalaren kudeaketa zure eskuetan egongo balitz, zer egingo zenuke? Zeri emango zenioke garrantzia?" Galdera honek, hainbat bide sortu ditu. Hortaz, bide hauek erraztasun handiagoz identifikatzeko, 3.irudia daukagu. Bertan, Sztompka-ren *gizarte aldaketarako tipologia* (1993) jarraituz, adituek aipatutako espazio eta politikak ageri zaizkigu. Hala ere, irudian ageri diren elementuen kokapena ez da halabeharrez horrelakoa izan behar. Hau da, mailaketa hau tipo ideal bat den heinean, tipologia askoz ere lausoagoa izan daiteke eta, beraz, elementuak maila batean baino gehiagotan txertatu ditzakegu.

3 Irudia

Prospektiba. Aktoreen Aldarrikapenak

Maila Mikro	Maila Meso	Maila Makro
•Espazio publiko eta kolektiboak eraikitzea, eremu lokaletik. •Migraziorako Euskal Itun Soziala gizarte mailara, udalerri mailara, eramatea. •Erroldatzeko erraztasuna bermatzea, migrariak baliabide publiko esentzialetara (hezkuantza, osasuna, etxebizitza eta enplegua) heldu daitezen. •Informazio programak eraikitzea, zurrumurruak ekiditzeko eta errealitatea ezagutzeko asmoz.	•Unitate didaktikoen ekoizpena kolektibizatzea. •Gizarte-mugimenduen parte-hartze instituzionala. Parlamentuaren birantolaketa. •Hirigintza aldaketa. •Konpetentzia instituzionalen birantolaketa: hezkuntza, enplegua, hirigintza, eta abar. •Aniztasun kulturala kudeatzeko marko bat sortzea.	•Atzerritartasun legea aztertzea, moldatzea edota deusestatzea.

Iturria: norberak egina, adituen hausnarketetatik abiatuta.

Azkenik, analisiaren emaitzak laburbiltzeko asmoz eta hurrengo ikerketa batzuen hastapen bezala, AMIA teknika erabili dugu (3.taula), gizarte eraldaketa prozesu honen zailtasun eta potentzialitateak era bisualean irudikatzeko asmoz.

3 Taula

Kulturarteko gizartearen bidean aktore eta espazioak aztertzen: AMIA analisia.

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
Gizarte Zibila: -Izaera indibidualista -Tentsio oro krisi gisa hartu, kaosa balitz ikusi. -Plan zabalegiak sortzea. **Administrazio Publikoa:** -Gehiegizko burokratizazioa. -Espezifikotasunak asetzeko espaziorik ez. -Barne-komunikazio ahalmen txikia. -Area ezberdinen arteko interakzio eskasa. **Akademia:** -Gizartetik urrunegi askotan. -Merkatuaren praktika konpetitiboez kutsatuta egotea, ikerketa publikoa eta honen izaera komunitarioa alde batera utziz.	**Gizarte Zibila:** -Prozesu komunitarioen birsortzea teknologia berriez baliaturik. -Administrazio publikoa inoiz helduko ez den espazioetara heltzea. **Administrazio Publikoa:** -Merkatu erregulatzeko ahalmena. -Berehalako eragina izateko ahalmena. **Akademia:** -Ezagutza zientifikoaren legitimitatea. -Gizartea eta administrazioa argitzeko gaitasuna.
MEHATXUAK	**AUKERAK**
Gizarte Zibila: -Neoliberalismoak urteetan zehar bultzatu duen subjektibitate aldaketa. -Globalizazio liberalaren bidezko estandarizazio kulturala. **Administrazio Publikoa:** -Boterearen zentralitateak dakarren kudeaketa lokalaren pisu txikia. -Bai gizartearen eta baita merkatuaren erdian egotea, gizartea ordezkatu beharra, baina beti merkatuaren itzalarekin. **Akademia:** -Interes pribatuen boterea, ekonomikoa bereziki. -Administrazio publikoen laguntza, interes eta finantziazio eskasa.	**Gizarte Zibila:** -Globalizazioaren bitartez hegemonikoak ez diren kulturak ikustarazi. -Intersekzionalitateaz aldaketa subjektiboa lortu. -Plan partzialak sortu. **Administrazio Publikoa:** -Udalerrien hirigintza aldatzea, benetan publikoak diren espazioak sortuz. -Politika publikoen bitartez, kolektibo zaurgarrien -kasu honetan, migrarien-bizi-baldintzak bermatu, parte-hartzea ere bermatuz. -“Basozain”-aren kudeaketa. **Akademia:** -Gizartearentzat ikertzea, ikereketa benetan publikoa izatea. -Errealitate konplexuak argitzea.

Iturria: norberak egina, adituen datuetatik abiatuta.

5. Ondorioak

Hasteko, ikerketan zehar, XXI.mendeko migrazio-prozesuen problematiken inguruan aritu gara. Problematika horiek, beste garai batzuetakoekin konparatzen baditugu, hiru ezberdintasun nagusi dituzte, immigrarien integrazioa zailtzen dituztenak, izan ere.

- Lehena, atzerritartasun legea izango litzateke. Atzerritartasun legeak, migrariei traba anitz jartzen dizkie. Horien artean, enplegua lortzeko zailtasuna eta, askotan, ezintasuna ere. Hortaz, ez-ohiko enpleguak sustatzen dituen tresna bilakatu da.
- Bigarrenik, immigrariek arrazializazioa jasaten dute. Arrazializazio hau, ez genuke esango gizartearen partetik hegemonikoa denik, ezta migrariek horri ezinbesteko garrantzia ematen diotenik. Hau da, migrariek, sistema kapitalistaren baitan diharduen gizabanako orok bezala, maila ekonomikoari egokitzen diote garrantzi gehien. Lan-merkatuan dator, izan ere, arrazializazioaren koska nagusia. Migrariei ez zaie bermatu lan-merkaturatzeko aukera berdintasuna. Enplegua lortu dezaten erabat biluztu behar dira. Horretan datza, izan ere, migrarien arrazializazioaren oinarria.
- Hirugarren problematika maila sozioekonomikoak eragindako ziurgabetasuna izango litzateke. Maila sozioekonomiko minimo bat ez izateak, migrarien berezko zaurgarritasuna areagotzen du, euren etorkizuna lausotuz, ezjakintasunak erabat handituz.

Dena den, nahiz eta egungo migrazio-prozesuen eta migrarien integrazioen problematikak handiak eta anitzak diren, adituei dagokienez, aho batez, kulturartekotasuna posible dela adierazi dute. Hau da, ez da zertan utopia bat izan behar. Orain bai, kulturartekotasunerako bidean, sistema kapitalistaren baitan diskriminazioak eta zaurgarritasun egoerak anitzak direla onartu behar dugu. Hortaz, gizarte eraldaketarako prozesuan, ezin dugu

espero tentsiorik ez agertzea, diskriminaziorik ez egotea, ezta prekaritatean mantenduko diren immigrariak ez egotea. Espero behako litzatekeena, izan ere, migrariek biztanleria autoktonoaren eta kultura hegemonikoaren, aukera berdintasuna eskuratzea izango litzateke. Nola? Azterketan zehar definitutako hiru aktoreen arteko sarea osatuz. Aktoreek euren papera betetzen badute eta, era berean, norabide berdinean arraun egiten badute, kulturarteko integrazioa posbile izango litzateke.

Zentzu honetan, administrazio publikoak (1) erdiguneko papera hartuko luke. Akademiak eta gizarte zibilak identifikatutako arazoen aurrean:

- Espazio publiko komunitarioak eratu edota sustatu behar ditu:
    - “Baso-zaintzaile” hirigintza mota sustatu, kulturen nahasketa ahalbidetuz, kultura minoritarioen gehiegizko sakabanatzea eragin gabe.
    - Herriko nukleoan diharduten komertzioen arteko sareak sustatu, oinezkoen pasabideak, garraio publikoa, eta abar, malgutasunez indartuz.
    - Hezkuntza-sistema malgua eraiki, eskolen antolamenduari berebiziko garrantzia emanez.
- Harrera-sistema onak sortu, era horretan, harrera herriak eraikiz.
- Zaurgarritasun egoera dauden jatorri atzerritarra duten migrarien gutxieneko bizi-baldintzak asetzea, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta elikadura bermatuz. Bide berdinean, enplegua lortzeko aukera berdintasuna bermatzea, behar izatekotan, diskriminazio positiboa erabiliz.
- Interes pribatuetaik aldentzea, merkatua, interes publikoen alde, erregulatuz. Hau da, askatasun ekonomikoak, berdintasunaren eta justiziaren izenean, erregulatzea.
- Akademia indartu, ikerketa publikoa sustatuz.

Gizarte zibilak (2), aktoreen artean rolik herrikoiena hartuko luke:

- Immigrarien eta administrazio publikoen arteko zubia izanez. Hau da, aurreko sekzioetan aipatutako *input-output* logika jarraituz.
- Administrazio publikoak eraikitako espazioak bereganatuz, antolatuz eta erabiliz.
- Udalerri mailan subjektibitateak aldatzea, gizabanakoen mailan aritzea. Horretarako, ezinbestekoak lirateke, zurrumurruen aurkako kanpainak sortzea edota indartzea.

Azkenik, akademiak (3) rolik ahulena izango luke, gaur egun. Hau da, unibertsitateak egun duen ahultasuna dela eta, ikerketa publikoa egiteko zailtasunak agertzen ditu eta, are gehiago, gizartera heltzeko. Beraz, akademiaren betebeharren artean:

- Politika publikoei bideratutako ikerketa garatzea. Maila teorikoaz gain, politika kultural eta sozialak uztartuko lituzkeena. Hau da, plurikulturalitatea aztertu, arazoak aurkitu eta ondoren, administrazio eta gizarte mailara jaitsi.
- Azterketen hartzailea, administrazioez gain, gizartea bera bada, mezu ulergarriak botatzea. Izan ere, ikerketa gizartearentzat egitea, komunitatearentzat egitea eta, ez bestelako akademikoentzat.

6. Eranskinak

6.1.Elkarrizketen Gidoia

Sarrera: "gizarte mendebaldarreko errealitate kulturala testuinguratzea". (30-45´)

- Aniztasun kulturalari dagokionez, zein da egungo errealitateari buruz duzun pertzepzioa?
- Kulturari dagokionez, balio-sistema neoliberala gizarte mendebaldarrean txertatu egin da. Erlazioa al du honek kultura nazional edo herrikoiekin?
- Migrazio-prozesuek eragina al dute egoera honetan?
- Migrazioek zalantzan jartzen dituzte kultura hegemonikoak? Euskal kultura zalantzan jartzen dute? Kultura neoliberala zalantzan jartzen dute?
- Nola ari gara plurikulturalitatea kudeatzen?
- Posible izango litzateke kudeaketa forma aldatzea?
- Zeintzuk izan beharko lirateke gizarte eraldaketa horren aktoreak?
- Horrenbestez, kulturartekotasuna posible al da?
- Eta ezin bada, zein da lortu behar den gutxienekoa?

Aktoreen garapena (30-45´)

- Nondik hasi beharko litzateke kudeaketa hori?
- Zein da gizarteak -bere osotasunean- izan beharko lukeen papera?
- Zeintzuk dira gizarte zibilak aurrera eraman beharko lituzkeen ekimenak?
- Zeintzuk dira ekimen popular hauek martxan jartzeko espazio egokienak?
- Zeintzuk dira gizarteak, aniztasun kulturalaren kudeaketan, dituen aukera eta oztopoak?
- Zein da instituzio publikoen papera?

- Zeintzuk dira aurrera eraman beharreko politika publikoak? *"Politika publikoen barnean espazioak definitzen saiatu (urbanismoa, hezkuntza, etab.)*
- Zeintzuk dira instituzio publikoen aukera eta oztopoak?
- Zeintzuk izan behar dira landu beharreko arlo edota eremuak? Zeintzuk eman lehentasuna?

Prospektiba

- Zure esku egongo balitz aniztasunaren kudeaketa egitea zer egingo zenuke? Zeri emango zenioke garrantzia?

6.2.Ikerketaren analisirako erabili diren elkarrizketen zerrenda eta informazioa

- *1.Elkarrizketa.* BaoBat Elkartea.
    - *(E 1.1).* Elkartearen kide den eta jatorri senegaldarra duen migraria.
    - *(E 1.2).* Elkarteko koordinatzailea.
- *2.Elkarrizketa.* SOS Racismo.
    - *(E 2.1).* SOS Racismoko asanbladako kidea eta kulturartekotasunean aditua.
    - *(E 2.2).* SOS Racismoko kidea, Colombian jaiotakoa eta ikuspegi poskolonial eta dekolonialetan aditua.
- *3.Elkarrizketa (E 3).* EHUko irakasle ohia, Ikuspegi eta Begiruneko fundatzailea eta immigrazioan aditua.
- *4.Elkarrizketa (E 4).* EHUko irakaslea, soziologoa eta CIVERSITY (Ciudad y Diversidad) ikerketa taldeko arduraduna.

- *5.Elkarrizketa (E 5).* Barakaldoko immigrazio arloko udal-teknikaria 2003.urteko irailetik.
- *6.Elkarrizketa (E 6).* Muskizko udaletxeko zinegotzia, soziologoa, kultura arloko gizarte-mugimenduetako kidea eta animatzaile soziokulturala.

Erreferentziak

Agirreazkuenaga, J. (2016). *De los vascos sin historia a los vascos con historia.* Txertoa.

Augé, M. (2000). *Los "no lugares" espacios de anonimato. Una antropología de la sobremodernidad.* Gedisa Editorial.

Bernabé, D. (2018*). La trampa de la diversidad: Cómo el neoliberalismo fragmentó la identidad de la clase trabajadora*. A Fondo.

Bernabé, M. M. (2012ko ekainaren 4a). Pluriculturalidad, multiculturalidad e interculturalidad, conocimientos necesarios para la labor docente. *Revista Educativa Hekademos*, 11 zk. (Año V), 67-76.

Bourdieu, P. (1997). *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción.* Anagrama.

Bourdieu, P., Passeron, J. C., Melendres, J. eta Subirats, M. (1977*). La reproducción: elementos para una teoría del sistema de enseñanza*. Laia.

Bricker, D. eta Ibbitson, J. (2019). *El planeta vacío.* Penguin Random House.

Burnett Tylor, E. (1993). [1871] Cultura primitiva. In P. Bohannan eta M. Glazer, *Antropología Lecturas* (64-78 orr.). McGraw-Hill.

Colomo, J. (2001). Desarrollo, subdesarrollo y migraciones internacionales a comienzos del siglo XXI. *Espacio, tiempo, forma, serie VI, Gegografía*, 14 zk., 37-73.

Cubells, L. (2018ko abenduaren 11a). Derechos humanos: interculturalidad o barbarie. *El Salto.* https://www.elsaltodiario.com/el-rumor-de-las-multitudes/derechos-humanos-interculturalidad-o-barbarie

Euskal Estatistika Erakundea (2018). *Gasto en I+D interna en la C.A de Euskadi por sector de ejecución según el origen de los fondos (miles de euros).* Ekonomia eta Ogasun Saila, Eusko Jaurlaritza. https://www.eustat.eus/elementos/ele0000200/Gasto_en_ID_interna_en_la_CA_de_Euskadi_por_sector_de_ejecucion_segun_el_origen_de_los_fondos_miles_de_euros/tbl0000236_c.html

García, M., Ibáñez, J. eta Alvira, F. (1986). *Análisis de la Realidad Social: métodos y técnicas de investigación.* Alianza Editorial.

Geertz, C. (1973). *La interpretación de las culturas*. Gedisa Editorial.

Harvey, D. (2012). *Ciudades Rebeldes. Del derecho de la ciudad a la revolución urabana*. Akal.

Jameson, F. eta Zizek, S. (1998). Estudios culturales. Reflexiones sobre el multiculturalismo. Paidos.

Kottak, C. P. (2007). *Introducción a la antropología cultural*. McGraw-Hill.

Leontief, W. eta Inchausti, Á. A. (1984). *Análisis económico input-output*. Orbis.

Martinez, Z., Casado, B. eta Ibarra, P. (2012). Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak. *Hegoa*, 57 zk., 1-36.

Marx, K. (2013). [1867] *El Capital: tomo I*. e-artnow.

Merton, R. K. (1942). Science and technology in a democratic order. In B. Barnes, *Los imperativos institucionales de la ciencia* (64-78 orr.). Alianza Editorial.

Micolta, A. (2005). Teorías y conceptos asociados al estudio de las migraciones internacionales. *Revista del Departamento de Trabajo Social, Facultad de ciencias Humanas, Universidad de Colombia*, 7 zk., 59-76.

Órgano Estadístico Específico del Departamento de Empleo y Políticas Sociales (2019). *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera 2018.* Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Gobierno Vasco. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_epie/es_def/data/Informe-de-resultados-de-EPIE-2018.pdf

Rivas, P. (2006). La nueva política y la identidad colectiva en la gestación de los conflictos. Algunas claves para entender el fenómeno migratorio a principios del siglo XXI. M. Anxo eta A. Galindo, *Inmigración y estructuras sociales* (267-281 orr.). Publicaciones Universidad pontificia de Salamanca.

Sanmartín, J. J. (2012). Inmigración, Seguridad y Democracia. *Revista Castellano-Manchega de Ciencias Sociales*, 13 zk., 179-194.

Stalin, J., Terray, E., Rodinsom, M. eta Ribó, R. (1977). [1913] *El marxismo y la cuestión nacional*. Anagrama.

Sztompka, P. (1993). *Sociología del cambio social*. Alianza Editorial.

Weber, A. (1960). *Sociología e historia de la cultura*. Galatea Nueva Visión.